

DESAGERTU ZIREN

Asko dira urteen joanarekin desagertu diren ofizioak; beste asko galtzear dira. Ogibideen gainbehera bizi izan duten herritarrekin hitz egin du Uztarriak 20



HORTZ INPLANTE
ETA PROTESIETAN
ADITUAK GARA.


I N N O V A
HORTZ KLINIKA

MILAR LARRAMENDI

Exetresna elektrikoak
Julio Urkixo etorb. 16 | AZKOITIA
Tel. 943 85 18 97

MILAR

Cooking&Chef

Sukalde Gunea
Xabier Munibe 11 (Liburutegi ondoan) | AZKOITIA
www.sukaldeak.eus



uztarria

Argitaratzailea. Uztarria

Komunikazio Taldea. Azpeitia

Egoitza. Perez Arregi plaza 1, behea, (Azpeitia, 20730)

Telefona eta faxa. 943 15 03 58

Posta elektronikoa.

uztarria@uztarria.eus

Posta kutxa. 227, Azpeitia

Lege gordailua. SS-860/2000

Zenbakia. 200.a (2017ko abendua)

Urtea. XVIII.a (1999ko azaroan sortua)

Maiztasuna. Hilabetekaria

Diseinua. Eregi Komunikazio eta

Euskara Zerbitzuak

Publizitatea. 685780412 /

uztarria@uztarria.com

Bazkidetza. 943 15 03 58

Tirada. 2.500 ale hilero

Inprimategia. Leitzaran Grafikak

Azaleko argazkia. Maialen Etxaniz

Webgunea.

www.uztarria.eus

Uztarria herri aldizkariaren laguntzaileak eta ziurtagiriak



DOMUSA
TEKNIK



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritzako
Hezkuntza, Hizkuntza
Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako
Sailburuordetzak) diruz
lagundua

Oharra. Uztarriak ez du bere gain hartzen aldizkarian esandako iritzien erantzukizunik

2017KO ABENDUKO UZTARRIA ALDIZKARIAN ZER?



iritzia

Inkesta. Herriko zein jolas parke duzu gustukoen? **13**

mamia

Elkarrizketa. Iñaki Bastida AEBetan izan da tesi zatia egiten **04**

Klik! Antzerki konpainiek sormen egonaldiak egiten dituzte Azpeitian **16**

Demografia datuen gora-beherak.

Demografia datuak aztertu ditu Marta Luxan soziologoak **26**


jakiteko

Bestaldetik. Solasean, Eider Mendoza Batzar Nagusietako lehendakariarekin **34**

Ba al dakizu, bisitak tarteko, hamasei adin txikiko azpeitiarrek jasaten dituztela dispartzioaren ondorioak? **Uztarria**


Izan uztarriaren bazkide **t 943 15 03 58**

Herri aldizkariak gain, Uztarriaren produktuak ere eskuratuko dituzu. Uztarria Komunikazio Taldeak orain arte **13 liburu, CD 1, DVD 1 eta biografia txikiak** atera ditu. Bazkideak baino ez ditu jasotzen.



1.060 bazkide gara Uztarria Komunikazio Taldean; eskerrik asko denei.

30 euro dira urtean.



Liburuxka biografikoak, oraingoz. Julian Bereziartua, Leo Etxeberria, Valentina Agirre, Santi Lazkano, Amaia Garmendia, Enkarna Arregi, Iñaki Bergara, Bernardo Aizpitarte 'Kabra', Enrike Zurutuza, Maria Jesus Arregi, Patxi Azkargorta

IÑAKI BASTIDA

kimikaria

“Jendeari Laguntzeko era bat da ikertzea”

Kimika Organikoko doktore tesiaren zati bat AEBetako The Scripps Research Institutuen egin du, “munduko ikerketa zentro onenetako batean”. 📝👁️ **Ihintza Elustondo**

Ez du atseden hartzeko tarte handirik izan orain gutxira arte Iñaki Bastidak. “Normalean, 09:00-09:30 aldera iristen naiz lanera, eta 23:00ak ingurura arte egoten naiz hemen”, zioen duela egun batzuk. Eguna joan eguna etorri, 12-13 ordu ematen zituen lanean. Lo egiteko orduak kenduta, gainontzeko ia guztiak. Asteburuetan ere, berdin. Elkarriketa honen galderak ere lantokitik erantzun zituen, AEBetako egonaldia amaitzeko asko falta ez zitzaiola. San Diegon (Kalifornia, AEB) egon da hiru hilabetez, Scripps Research Institute ikerketa zentroan.

Gelditu gabe ezingo zara hainbeste orduz lanean jardun...

Ez, ez, batzuetan atsedenen bat edo egiten dugu. Batzuk lantokian gimnasiora eta dena joaten dira, baina ni ez. Hiru hilabete emango ditut hemen, eta ahal den gehiena aprobetxatu nahi dut egonaldia. Baina denetarik dago, batzuk hemen lo egiten ere gelditzen dira. Eskerrak hiru hilabete diren, ze hemen urte oso bat horrela egotea...

Nolatan zaude hor?

Kimika ikasi nuen Bartzelonan, eta, gero, Donostian Kimika Organikako masterra egin nuen. Masterreko proiektuko talde berekin Kimika Organikako doktore tesia egiten hasi nintzen, Eusko Jaurlaritzaren beka batekin, eta, horren barruan, nazioarteko doktoretza egiteko aukera

|||**DATUAK**|||||||

|||**Jaio.** 1991ko ekainak 16.

|||**Herria.** Azpeitia. |||**Bizitokia.** San Diego (Kalifornia, AEB). |||**Lanbidea.** Kimikaria, doktore tesia egiten ari da.

dago. Horretarako, gutxienez, bizpahiru hilabete eman behar dituzu beste ikerketa zentro batean lanean, kanpoan. Munduko edozein tokitara joan zaitezke, eta nik toki hau aukeratu nuen, onenetakoa bat delako.

Noiz arte egongo zara hor?

Irailaren 1ean hasi nintzen ikerketarekin, eta azaroaren 30ean bukatuko dut. Gero, bi astez oporrak hartuko ditut, Kalifornia eta Las Vegas bisitatzeko. Abendu erdi aldean itzuliko naiz Azpeitira, eta Donostian jarraituko dut dok-

toretzarekin. Lau urte irauten du lanak, eta laugarren urtearen hasieran nago orain.

Zer ari zara ikertzen?

Sintesi organikoaren arloan kokatzen da nire ikerketa. Sintesi organikoa da molekula organikoak egitea, eta guk egiten duguna da molekula organiko horiek egiteko prozedurak edo metodologiak garatu. Bizia duen dena molekula organikoz eginda dago, eta botika gehienak ere molekula organikoak dira. Farmako posibleak izan daitezkeen molekulak ikertzen dira orain gehien; besteak beste, minbizia tratatzeko.

Munduko ikerketa zentro onenetakoa dela esan duzu zu lanean ari zarena. Zergatik diozu hain ona dela?



Taldeko zuzendariak kimika oso berritzailea egiten du, eta sari asko irabazi ditu mundu osoan. Ikerlariok gure ikerketetan atera-tako ondorioak aldizkarietan argitaratzen ditugu, eta gure zuzendariak munduko aldizkari onenetakoetan idazten du. Adibidez, molekula batzuk ezin dira egin egungo metodologia erabilita, eta ikerketa talde honetan metodologia berri batzuk garatu dituz-

te egin ezin diren molekula horiek egin ahal izateko. Orain, molekula berri batzuk proba daitezke min-biziak eta beste gaixotasun batzuk tratatzeko.

Berrikuntza horiengatik erabaki zenuen zentro horretara joatea?

Bai. Hemen ikasteko pila bat dago: nola lan egin, eta baita arazoei nola aurre egin ere. Nik ikerketa talde honetako artikulua

erabili izan ditut Donostian lana egiteko, eta ikusita onenetakoa dela, zera pentsatu nuen: "Non hobeto hemen baino!". Hemengo zuzendariari idatzi nion, eta hartu egin ninduen.

Erraza da horrelako zentro batean sartzea edo baldintza batzuk bete behar dira?

Hori zuzendariaren arabera izaten da. Egia esan, jende dezente etortzen da hona horrelako ego-

naldiak egitera. Orain, esaterako, munduko toki ezberdinetako sei pertsona gaude bi eta sei hilabete arteko egonaldiak egiten, eta, denera, 30 bat lagun egongo gara: batzuk tesiak egiten ari dira, besteak doktoreak dira eta gaintzekook egonaldiak egiten ari gara.

Nolakoa da zure horko egun bat? Zer egiten duzu zentroan pasatzen dituzun ordu horietan guztietan?

Egun guztiak ezberdinak dira, eta egunaren hasieran ez dakizu nola amaituko duzun. Erreakzio berriak frogatzen ditugu, eta emaitzen arabera, eguna moldatzen joaten gara. Tarteak dugunean, munduan zehar egiten ari diren ikerketak irakurtzen ditugu aldizkari zientifikoetan, geure burua eguneratuta mantentzeko eta egin dituzten aurkikuntza berriak ezagutzeko.

Esan duzu zuek egindako ikerketak, batez ere, medikuntzan eta farmazian baliatzen direla.

Organika biziarekin zerikusia duen zerbait da. Ingurugiroa kutsatzen ez duten pestizidak eta antzekoak egiteko metodoak ere sortzen ditugu, baina, egun, giza-kietan dago interesa, eta, horregatik, gaixotasunetan jartzen dugu arreta gehien. Guk egiten ditugun molekulak biologoek edo kimikako beste ikerketa talde batzuek aztertzen dituzte gero, ikusteko ea gaixotasunetan aktiboak diren, ea minbizia edo beste gaixotasunen bat tratatzeko balio dezaketen. Minbizia da orain gehien aztertzen dena, baina edozertarako izan daitezke.

Zuri zer ematen dizu egiten duzun lanak, ikertzeak?



argi lanak s.l.

Instalakuntza Elektrikoak

Urko: 618 96 49 95 / Jon: 649 12 02 71
 ikaargilanak@gmail.com www.ikainstelmak.com
 20730 AZPEITIA



Pinturak eta Parket Laminatuak 

Pablo VI, 20 - Tel: 943 15 73 25 - www.xabiermagoak.com

Jendeari laguntzeko era bat da ikertzea. Egunen batean lortuko banu zerbait oso erabilgarria... Adibidez, gaixotasun bat tratatzeko zerbait erabilgarria egitea sekulakoa izango litzateke niretzat, zuk egiten dakizunarekin jende pila bati laguntzen diozulako. Hori da nire ametsa.

Zentro horretan etengabe gauza berriak ikasten ariko zara. Zer eman dizu esperientzia honek?

Alde batetik, zentroko kide bakoitzak bere proiektua du, eta haiekin hitz egitean, egunero ikasten dut zerbait. Bestetik, kimika munduan oso garrantzitsuak diren pertsonak etortzen dira hitzaldiak-eta ematera. Gainera, hemen bertan Nobel saridun bat dago; institutu honetan denek asko dute irakasteko.

Zuretzako pribilegio bat izango da hor egoteko aukera izatea, ezta?

Bai, handia. Ez nuen espero baiezkua hain erraz lortzerik, ze badakit beste ikerketa talde batzuetan ez dutela zuk bidalitako mezua erantzun ere egiten. Probatzea erabaki nuen, eta hemen nago. Askotan gertatzen da munduko onenak munduko harroenak edo nagusi nahikoa txarrak izaten direla. Baina hau ez da kasua. Jatorria da gure zuzendaria, eta, egia esan, gustura nago.

Munduko onena izateko, zer

behar da? Zertan asmatzen du horko jendeak?

Lan asko egiten dute. Batzuentzat kimika bakarrik dago beraien bizitzan; horretarako bizi dira. Baina garrantzitsuena da asko gustatzea egiten dutzuna, eta gustuko dutenez, ahal den denbora gehiena pasatzen dute horretan. Etxean ziur kimikarekin eta ikerketarekin zerikusia duten gauzak egiten jarraitzen dutela. Esaterako, badago jendea umeak Txinan dituen eta hemen bi urterako dagoena.

Zuk ere horrela ulertzen duzu kimika? Zure bizitzan kimika bakarrik dago?

Ez, ez, nik horrela ezingo nuke bizi. Kimika asko gustatzen zait, eta ikerkuntza ere bai, baina nire bizitzan askoz ere gauza gehiago daude. Kimika parte bat da, baina beste gauza batzuk ere oso garrantzitsuak dira niretzat: familia, lagunak, musika... Kimikatik bizitzea gustatuko litzaidake, baina ez kimika egiteko bizitzea.

Zapatuetan eta igandeetan, bietan, egiten duzu lan?

Bai. Normalean, bi astetik behin igande bat libre izaten dut. Hala ere, hemen hiru hilabetez egongo naizenez, nik aukeratu dut asteburuetan ere lan egitea. Hemen bai, hemen kimika bakarrik dago nire egunerokoan, baina beno, ahal dudan gehiena aprobetxatzea nahi dut egonaldia.

Azpeitia, pixka bat bada ere, sumatuko duzu faltan, ezta?

Bai. Hemen gustura nago, San Diegon eguraldi ona egiten du, kostan dago... Hemengo bizimodua gustatzen zait, baina herria beti sumatzen da faltan, eta gehienbat, jendea. Azkenean, hemen lanaz aparte ez daukat ezer.

Ezagutzen ez duenari arrotza egin ohi zaio kimikaren mundua. Zuk mundu hau barrutik ezagutzen duzunez, zerk harritu zaitu gehien?

Alde batetik, harritzen nauena edo amorru pixka bat ematen didana da kanpotik nola ikusten den kimika. *Kimika* hitza badago esaldi batean, badirudi zerbait txarra dela. Adibidez, iragarkietan-eta *kimikorik gabe* jartzen dute, baina berez kimika dena da. Ikusten dugun dena kimikarekin eginda dago, beraz, txarra ez da; gauza da nola erabiltzen den. Kimikariak berez ez gara txarrak, zerbait ona egitea nahi dugu, baina egia da denetarik jendea dagoela. Horrez hain, beste gauza batek ere harritu nau. Ikerkuntza egiteko diru asko behar da, dirurik gabe ezin da ezer egin. Ni EHUari ari naiz tesia egiten, eta unibertsitate publikoa denez, laguntza publikoen menpen gaude. Eusko Jaurilaritzatik jasotzen dut laguntza, eta oso diru gutxi dela iruditzen zait. Hemen askoz ere

“gaixotasun bat tratatzeko zerbait erabilgarria egitea da nire ametsa”

“kimitatik bizitzea nahi nuke, baina ez kimika egiteko bizitzea”

diru gehiago inbertitzen da ikerkuntzan. Hona etortzeko, esan zidaten gutxieneko diru sarrera batzuk izan behar nituela, eta justu-justu iristen nintzen kopuru horretara; ia ezin izan nuen etorri horregatik. Pena ematen dit diruak hainbeste eragitea ikerketa esparruan eta toki batzuetan gobernuak prest ez egotea hainbeste inbertitzeko.

Aurrera begira, zer proiektu dituzu?

Egia esan, ez dakit. 2018ko urria inguruan amaituko dut doktore tesia, eta hurrengo urtea nahikoa finkatuta daukat. Hortik aurrera, ikusiko dugu zer etortzen den. Ikerketa arloa gustatzen zait, baina ea zer aukera dauden horretan segitzeko. Bestela, industria kimika arloan edo irakaskuntzan lan egin aha izango nuke. Baina lehen helburua ikerketan segitzea da.

BIYONA

BERRIKUNTZAK-REFORMAS

www.biyona.net / biyona@biyona.net

Etxebizitza zaharberritzea nahi duzu?



Abercaino poligonos, 2
Tel. 943 355 016
Zarautz

Santiago azoka, 12
Tel. 943 343 443
Zumaia

San Juan, 16 edif. AXIII
Tel. 943 852 110
Azkoitia

Gestoga Kalea, 18
Tel. 943 348 241
Zestoa

Erositako etxebizitza eraberritu nahi duzu?

Zer eskaintzen dugu?

Konpromisorik gabeko aurrekontua
Gremioen koordinazioa
Epeak betetzea
Erakusketa handiak

Ispilu, ispilu

Azpeitiarrok harroak garenaren sona dugu inguru hurbil eta ez hain hurbilean. Zaila egiten zait teoria hori baieztatzea, alde edo kontra jardutea. Egia esan, alfergurea sorrazten dit esames topiko-tipiko horiez jarduteak. Nor ez da, puntu batean behintzat, harro sentitzen bere herriaz? Adibidez, hainbat eta hainbat aldiz Azpeitia eta Azkoitia nahasten dituztenetan zera gertatzen da:

– Aaaa... Orduan Azkoitikoak zara?

Eta guk zer esaten dugu orduan? Isilik gelditzen gara? Baita zera ere! Azkar asko egiten dugu salto:

– Ez, ez, barkatu, AzPPPeitikoak naiz ni. AzPPPei-tia!

Egia esan, bost axola zait kontu hori guztia, baina gauza bat aitortu behar dut: atzerrian izan naizenetan Azpeitiarekiko, eta batez ere, aberriarekiko dudak atxikimendua barren-barrenetik atera, azaletik pasatu eta ahotik atera zait. Harro puntu batekin, gainera! Aurpegi zurbildun eta orinez jositako begi urdinek *“Where are you from?”* galdetu izan didatenean, *“I’m from Basque Country”* erantzun izan diet, eta begiak bikoiztu egiten zitzaizkiela ikustean, zera pentsatu izan dut: *“Honek ez du Basque Country non dagoen arrastorik”*. Halakoetan, *“my country it’s between France and Spain, near the Pyrenees”*. Hori entzunda, normalean, begietako tentsioa lasaitzen zitzairen. Jarraian, gure hizkuntzaz eta ohiturez hitz egin izan diet, ahalik eta harrotasun apalenarekin, baina, era berean, harro.

Urrutirra joanda, distantzia jarrita, besteen ispiluak ikusteko aukera ematen diogu gure buruari; besteei geurean islatzekoa. Norberaz hitz eginez eta bestea entzunaz, gure aberriarekiko ditugun sentimenduez jabetzen gara, sustraian sakontasunaz. Begiek bat egiten dutenean eta onartzen direnean aberasten gara. Arrotza zitzaien *Basque Country*a ezagunagoa egiten zaio, eta une horrek merezi du!

Mundiala izan zen

Kontatutakoa askotan gertatu izan zait, baina le-




||||||| olatz aguado |||||

||| Arrotza zitzaien ‘Basque Country’-a ezagunagoa egiten zaio, eta une horrek merezi du!

hengo astean Azpeitian gertatutakoa mundiala izan zen!

Txiki-txikitatik hazten ikusi dudak eta Maroko-jatorria duen nerabearekin egin nuen topo aspaldiko partez. Elkarren kontuak berritu ondoren, zorioneko isilune batek eta urteetako konfiantzak bat egin zuten. Nerabeak lepoa luzatu eta begi beltzaranak norabide zehatz batera zuzenduta, zera esan zidan: *“Olatz, zer esan nahi du horko kartel horrek?”*. Nik ere lepoa luzatu nuen, begiak norabide berera zuzendu nituen, eta zer ikusiko? *“Euskal presoak, Euskal Herri-ara”* zioen kartel bat zaborrontzi batean itsatsita. Lepoa bere onera ekarri eta berari begira, honako hau esan nion: *“Kartel hori askotan ikusiko zenuen ba. Inoiz ez al diozu inori galdetu zer esan nahi duen?”*. Eta, berak: *“Bai, askotan ikusi dut, baina galdetu sekula ez”*. 40 urte atzera egin eta orduko eta oraingo Euskal Herriko egoerak irudikatzen ahalegindu nintzen. Poliki eta pixkanaka, kontenedoreko kartelera iritsi arte. Azalpena borobildu nuelakoan, amaiera eman nion. Isilunea laburragoa izan zen, baina bere begiek itzuli zidaten esker ona betirako izango dut bihotzean.

Atzerri joan eta kanpoko ispiluetan begiratzeara aberasgarria da, baina badira gure herrian bizi eta hazi diren urrutiko ispiluak. Badira, ordea, ispilu horietan begiratzeari uko egiten dioten herrikideak. Ez dakit arrazoiak, dakidana da elkarbitza elkar begiratzean hasten dela!*



Erlojua(k) eta denbora

Honelaxe aurkitu zaitut sukaldeko lurrean, mila zatitan. Ez dakit zerbait esan nahi ote zenidan, eta jada berandu den. Denbora akabatu dut, antza. Esaldi horiek idatzi nituen Facebookeko arbelean, udako iluntze epel batean. Logelan nengoen, eta sukaldetik zetorren hots bat entzun nuen, gogorra eta bizia. Zerbait mila zatitan apurtu zela sumatu nuen. Atearen atzetik begiratu nuen, erdi-beldurtuta, eta ikusi nuen erori zena sukalde erdi-erdian zegoen erloju handia zela. Kasualitatea edo ez, niri ere zerbait erori zitzaidan gau hartan, zerbait apurtu zitzaidan barruan, eta sukaldeko erlojuari idatzi nion neure buruari esaten ausartu ez nintzena.

Erloju bat apurtzen denean, orratzak gelditzen direnean, guztia bukatzen da. Taupadak gelditzen dira, eta isiltasunarekin zer egin ez dakizula gelditzen zara. Sentitzen duguna eta errealtatea ez daude lerrokatuta, ordea. Eta guri kostatu egiten zaigu ikustea denborak etenik ez duen arren, erlojuak ez direla betirako. Erlojua mila zatitan apurtu arren, segundoez eta minutuez aurrera darraite. Erlojua konpontzen saia zaitezke, berri bat eros dezakezu edo erlojurik gabe bizitzea aukeratu dezakezu. Gutxietsi egin nuen denbora.

Uztarriak eskatu zidan nire burua deskribatzen zuen elementu bat hartzeko, iritzi artikulu hauetan jartzeko. Hamaika buelta eman ostean, ez nekien ziur zerekin identifika nezakeen nire burua. Lagun batek proposatu zidan erlojua aukeratzea, "patxadaz bizi zaren arren, denbora ematen dizulako gauza pila bat egiteko". Gustatu zitzaidan esan zidan hori, eta gustatu zitzaidan erlojuak berarekin dakarren guztia. Gustatu zitzaidan erlojuaren eta denboraren metaforatik begiratzea bizitzari, eta denboraren joanak berak eskaintzen digun ikuspegiarekin zuek bustitzea: Ezagutzen duzue denbora bezain gauza objektibo eta aldi berean subjektiborik? Definizio argia duen zerbait da denbora; baina askotan ihes egiten diguna, ulertzen ez duguna edo korapi-



eneritz albizu

III **Eta guri kostatu egiten zaigu ikustea denborak etenik ez duen arren, erlojuak ez direla betirako**

latuta gelditzen dena. Ni ere halako zerbait naiz.

Abendura ekarri gaitu

Halaxe, denbora akabatu nuela pentsatu baten ere, ez nuen asmatu; eta hemen nago, duela urtebete bezalaxe, Uztarriarako abenduko iritzi artikulua idazten. Berrito urteko azken kolpeak arnasten eta zuei zer kontatu pentsatzen. Hamabi hilabeteotan egindako bideari begiratzen; eta, bide batez, barne ariketa bat egiten. Ordenagailuko pantailari begira nago, denborarekin zer egin dudana pentsatzen eta denborak nirekin zer egin duen onartzen.

Plazaren erdian dago gure herriko erloju handia ere, denborak mugitzen du, eta azken urtean herriari taupadak ematen jarraitu du: besteak beste, Balentina Agirreren omenez, emakume izena duen herriko lehen plaza inauguratu dute; Iraurgi Saskibaloi Taldeko gizonak Urrezko LEB ligara igo dira; eta guretzat erreferente den Berdura Plaza ikusi dugu amaituta, berrituta eta eraldatuta. Bi langile hil dira herrian lan-istripuz eta sexu-eraso salaketek zein gertaerek ere izan dute beraien tarte denboran. Orain, beste urtebete dugu aurretik, besarkadak emateko eta elkar errespetatzen ikasteko. Beste urtebete eta bizitza bat, euskaraz egiteko.

Aldatu dut nire sukaldeko erlojua.✱



AZKEN PLAZAK ! EZ GALDU AUKERA !

Tierra Santa. El viaje de tu vida
Primavera 2018

JERUSALÉN

Lurralde Santua. 2018ko udaberria

Autobuses Bilboko aireporturaino - Gida, bidai osoan zehar - 8 egun - 7 egun ibilaldiekin
Gau irteera bat ikus entzunezko ekitaldi batera - Ibilaldietako sarrerak
Bazkariak jatorrizko jatetxeetan - Bertako gida (gaztelaniaz)

(27/04 - 05/05)

1.765€ + tasak

Crucero fluvial. Junio 2018

VOLGA

Ibai zeharkaldia

Autobuses Bilboko aireporturaino - Gida, bidai osoan zehar - 12 egun ibai zeharkaldian
MS Konstantin Fedin 4* sup edo antzeko itxasontzia - Pentsio osoko egonaldia
Ibilaldian aipatutako bisitak - Gida eta laguntzaileak ibilbidean zehar - Oinarrizako aseguru
Mosku, Uglich, Yaroslavl, Goritsy, Kizhi (Onega lakua), Mandroga, San Petersburgo

(19/06 - 30/06)

2.484€ + tasak + bisatua

Informazio gehiago

943 81 06 73



Halcon bidaiak
azpertia

HIZKUNTZ ESKUBIDEAK

**GORA.** Edukazioa eta euskara, eskutik.

Saltokira sartzean eta handik irtetea bezero askok edukaziorik ez dutela eta, Pako Aristiren esamolde hau jarri dute zintzilik herriko denda batean. **Uztarria**

**BEHERA.** Euskara, debekatuta.

Enparango zubiaren hasieran lanak egin dituzte, eta argazkian ikus daitekeenez, kartela espainol hutsean idatzita zegoen. Ederra debekua euskarari! **Uztarria**



Lynn Hill eskalatzaila.

ESANA DAGO

“Satisfazioa, sormena eta naturarekin zein munduarekin lotura eman dizkit eskaladak”

LYNN HILL
eskalatzaila

“Lehiak fisikoki prestatuta egotea eskatzen du, gogor entrenatzea”

UNAI BERISTAIN
moto gidaria

“Xabier Azkargorta irakasle handia da. Hiru urtean etengabe ikasi dut berarekin. Nire entziklopedia zen”

MAURICIO
POCHETTINO
entrenatzailea

KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK

URBISTONDO MARGOAK

Salbe Auzunea, 35 beheak 20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81

Aiortza Autoak

CITROËN 943 811 915 - AZPEITIA
aiortzaautoak@telefonos.net

MOTA GUZTIETAKO AUTOEN KONPONKETAK

Matraka

Hemen zetorrek hau urteroko matrakarekin. Pentsatzen hasita nago helburua haserrea erakustea eta barrua hustea ala aurreko urteko testua hartu eta hilabete bateko lana gainetik kentzea ez ote den. Zein den urteoroko matraka? Horixe bera. Asmatu duzu. Eskola kirolari ez diodala inolako zentzurik ikusten. Eskola kirolak ez duela ez hanka eta ez buru. Eta mistoa bada, are gutxiago. Guzti hori, borondate onenarekin musutruk lana egiten duten guztiei nire miresmena aitortzearekin batera. Badakit alferrik ari naizela, trena aspaldi abiatu zela eta tren horren norabidea aldatzeko inolako asmo-

rik ez dagoela. Baina nik nire iritzia plazaratu gabe ezin egon. Eta nire iritzia horixe da, iritzi bat.

Taldean egiten diren bakarkako kirolek inolako mugarik ez duten bitartean, talde kirolak zigortuta daude. Aurrenekoek *barra-libre*; bigarrenengoak, dosi txikitik eta zaintzapean. Herri batzuetan arau batzuk, besteetan beste batzuk. Eta denak indarrean dauden arauak nola ihes egin zirrikitu guztiak aurkitu nahian. Gure etxean orduak falta dira kirola egiteko. Dena gustatzen zaie eta dena egin nahi dute. Asteke puzzlea osatzeko piezak soberan. Eta zer pieza kendu



txetxu urbieta

asmatu ezin. Kenduko nukeena ezin kendu, egin nahi duena egiteko kenduko nukeena egi-tea beharrezkoa delako. Kirola egiten ez duenari inork kargurik hartzen ez dion bitartean, kirola egin nahi duenak mugak eta trabak. Agintari jaunok gustatuko litzaidake, aita zintzo eta arduratsua naizenez, nire alabek zer kirol eta noiz eta nola egin emaztearekin batera nik erabaki ahal izatea. Ingelesa, pianoa, musika, erlijioa, matematika, euskara, gazte, bio-geo, zinema, mobila, goxokiak, paga, zigorrak eta beste abar luze batekin egiten dugun bezala. Txapeldunik ez dut behar, izerdia maita dezatela!*

IKUSTEKO!



▲ ONDO APARKATU ZITUZTEN BEHINTZAT!

Azaroaren ga. Kiroldegiairen ondoko aparkalekua. Horra arte, dena normal. Aparkalekua erdi hutsa, eta bi autoren kolpeleungailu bana. Bata ondo, behar bezala aparkatuta; bestea, marra ukitzen, hala moduz utzita. Hori dena argazkiaren laburpentsua zen. Galdera honako hau da: zer egiten dute bi auto zati horiek hor? **Julene Frantzesena** **Amaia San Vicente***

|||AZAROKO ARGAZKIEN OINAK. HIL HONETAN...|||



Ostiral Beltza

KIROLA. San Googleren edo San Amazonen –ez da propaganda merkea egitearren– kontra ez dago asko egiterik... Agian, aliatu eta beren lanketa berdina egin. Egia da edozein aitzakia behar dugula kontsumitzeko dugun ar hori pizteko, eta oraingo honetan, Black Friday iritsi da. Beltza izango da, agian, norbaitentzat, poltsikoaren barrena beltza utziko diolako. Gabonak ate joka dira, kontsumo garaia izan ohi da, eta entrenamendu gisa ondo etorriko zaigu, igual, Black Friday. Visa erreinuak lagatzen digun neurrian gaudituko ditugu Gabonak ere, eta gero etorriko dira urtarrileko behera penak. Sasoi hori iritsi bitartean zenbat gozatuko dugu... Gainera, Azpeitian izan bada, gehiago!



|||juan karlos arellano|||



Urtean egun bat?

GIZARTEA. Emakumeenganako indarkeriaren kontrako aldarria izan zen azaroaren 25a. Baina Azpeitiko plazan egun asko izan dira indarkeria horren kontrakoak, gehiegi. Aldarriak aldarri, gizarteak badu zer hausnartu, badu zer pentsatu, badugu zer egin. Gizartea guk geuk osatzen dugunez, badugu zer pentsatu eta zer egin. Norbanakook hasi behar dugu gizarte orekatua eraikitzen, bestela jai dugu.



Kirola Azpeitian

KIROLA. Argazki hau aitzakia hartuta ausartu naiz Azpeitian dagoen kirol zaletasunaz lau kontu esatera. Kirola oso ariketa ona da osasun alde-rik; ohitura onak sortzen ditu eta oreka fisikoa eta mentala bideratzen du. Baina garbi dago kirol maila asko ditugula. Profesionala alde batera utzita,

lehia alde batera utzita, praktikatzen denaz aritu nahi nuke; izan ere, azpeitiarrok, orokorrean, oso irudi ona ematen dugu Behobian, Getaria-Zarau-tzen, mendi laisterketetan... Gainera, adin guztietako herritarrek parte har-tzen dute proba horietan guztietan. Animoak, eta aurrera bolie!*

INKESTA

herrian dauden
jolas parkeen
artean, zein duzu
gustukoak?

📌 **Ihintza Elustondo**

ERIK KEREJETA

7 urte



**“Done Jakue
kaleko parkea da
gehien gustatzen
zaidana; izan ere,**

**bueltak ematen dituen
egurrezko jolas bat dago
bertan, eta izugarri gustatzen
zait han bueltaka ibiltzea.
Eskalatzea ere gustatzen zait”.**

XUBAN ARANAGA

6 urte



**“Done Jakue
kaleko parkea,
amaraun moduko
jolas bat duelako.**

**Sanagustin kulturgunearen
ondoko parkea ere gustatzen
zait, zabuak ditu eta”.**

NOHA DONOSO

6 urte



**“Balentina Agirre
plazako parkea
asko gustatzen
zait, hango**

**itsasontziarekin eta piraten
banderarekin jolastea atsegin
dudalako. Oso-oso
dibertigarriak dira”.**

JAKES ZUBIZARRETA

7 urte



**“Done Jakue
kaleko jolas
parkea da
gehien gustatzen**

**zaidana. Eskalatzeko gune
bat dago bertan, eta oso
gustura ibiltzen naiz gora eta
behera”.**

Aberria, zapatetan

Hamazazpi urte dira periferiatik kapitaldu nintzenetik, aurrez zientoka izan baziren ere metropolian emandako astebukaerak. Saskibaloian jokatzea, egunez. Atraskua, Dean edota Etxe Aitz bihotzekoak atzean utzi eta parrandara, gauzez: Urtzi-Etxe Zuri arteko etengabeko inimizia-bidaian gogon ditut Beti Alaiko danbor hotsak, gustukoak musikarenak, lehorrak eta zakarrak, besteak. Neskatarkoak Rubio zenaren Elurarako edota Patxi denaren Fideorako sarraldiak, edota Gau Txoriko sartu-irtenak, auto-stopean itzulerako bidean jarri aurretikoak.

Hamazazpi urte, ha-ma-zaz-pi dira, Azpeitian bizi naizenetik. Azkar esaten da. Ordudanik aldatu egin da Azpeitia, aldatu egin dira azpeitiarrak. Baita biziguztiko-Erdikaleko-azpeitiano-peto-petoak ere. Neu ere bai, ziur. Azpeitiko azkoitiarra. Ez naiz kexu. Txantxa txotxoak alde batera utzita, ondo hartu naizue.



||||||| **imanol amiano** |||||

Ez dira, ez, orde, inimizia bidaia egun Azpeitiratzen direnenak. Ez datoz ligatzera. Festara. Ezin dute goizaldera, auto-stopean, beren herrira itzuli, familiarengana. Bizi berri eta hobe baten bila etorri dira; sarri, ihesi. “Nire aberria nire familia da”, esan zidan euskaltegiko ikasle marokoar batek. Nik ere hemen ditut neureak, gertukoak behintzat. Eta besteak, hurbil. Marokoar gazteak ez.

Belimelaldik eta Jeradatik; Quito eta Cuernavacatit. Lehen Zalamea eta Quintana de la Serenatit bezala. Azken horretakoak dira, hain zuzen, neure emaztearen gurasoak. Kostatu da, zaie, zaigu, baina bertakotu dira, ditugu bazter gogor hartatik, Extremadura hartatik etorritakoak. Edo ondorengoak, behintzat.

Gaurko etorkinak, El Ultimo de la Fila parafraseatuz, “aberría zapatetan” dakartela ditugu gure artean. Denon lana eta erantzukizuna da ez daitezen izan ilarako azkenak.✱

**galdetzen hasita, hondakin sistema
berriarekin iritsiko al da Azpeitiko
gaikako bilketa tasa %70era? 📌 Uztarria**

Askatasun bidea

Oinez goaz leku batera hurbiltzeko, beste batetik urruntzen garen bitartean. Bizitzako momentu askotan, bidea topatzeko abiapuntura itzuli behar dela ikasten ari naiz. Horixe bizi izan dugu Katalunian prozesuan eta gauza bera gertatu daiteke Euskal Herrian ere.

Duela aste batzuk, Donejakue Bidearen zati bat egin nuen, oinez: Iruñetik Santo Domingo de la Calzadara (Errioxa, Espainia). Argibideak jarraitzea zen nire eguneroko zeregina, galdu gabe ibiltzea, egunaren amaieran aurreikusitako herrira iritsi eta etapari amaiera emateko. Iritsitako tokian, zauriak eta minak sendatzen nituen. Jan, lo egin, eta hurrengo egunean, berriro ere motxila hartuta, bideari ekiten nion.

Aurreranzko bidaia izan da, baina baita neure baitan egindako bidaia ere: askotan, min fisikoak nire barneko minari aurre egiten zion, eta ez nekien garraile nor itongo zen. Azkenean, lagunak egin dira,




||||||| **linette montalvo** |||||

eta nire helmugara iristeko poztasuna eman didate. Beraz, guztiz asebeteta nago. Dolu honetan interresgarriena nire min fisikoa eta emozionala zein aurkari xumeak diren konturatzea izan da, eta ikusi dut zer-nolako indarra duen intuituak bizirauteko. Nire barnean amorrua sentitu dut, eta amorru horrek ez etsitzera eraman nau; hasitakoa amaitzera, hain zuzen ere. Galduta zaudenean, bakarrik, eta eguna iluntzen ari denean, ez min fisikoak, ez emozionalak, ez zaitu zeure helburuetatik aldenduko.

Seinaleak beti daude eta adi egon behar dugu. Hori bidean ikasi dut. Zurekin joan ez arren, batzuetan atzean, besteetan aurretik, jendea zu bezala oinez doala jakiteak laguntzen duela ere ikasi ahal izan dut bidean. Azken batean, zure bidelagunak dira, zurekin bidea elkarbanatzen baitute. Sei eguneko ibilbidea pausoz pauso egin ondoren, bideak nire bihotzeko Azpeitira ekarri nau berriro ere...✱

HAU HOLAXEENK



Poteoan zientzialari

Alde guztietatik dator notizia, hezkuntza eraldatuz doan zientzia".

Hasierako puntuak jartzera ausartuko naiz bertsolaritzan adituak bihurtzen garen lau urteko garaian. Eta orain eman iezaiozue nahi duzuen amaiera, gaia denon ahotan dabil eta. Eraldatuz omen doa, azalberitzen den izaki baten moduan, prozesu natural baten antzera. Inork aktiboki eragingo ez bagenu legez.

Paretak bota direla HHko geletan, sormena landu daitekeela balio anitzeko elkargune-etan. Eskola librean ez direla hippie-en kontua soilik, elkarbizitzaren eta aniztasunaren

aldeko jarduerak egiten direla proiektu aitzindarien babesarekin. Teknologia berriak txertatuz errazten zaiola egunerokoa ikasle-ari, horien arriskuak mahai gainean jarritz, noski. Jolastokiak eraberritu direla, baloiari espazioa kendu geniezaiokeela. Hori besterik ez, eta hori guztia diote egunkariak, telebistako saio bereziek, sare sozialetan atsegin ditugun orriak, kaleko solasaldiek...

Pintxo poteko lehen tragoan, bazela ordua dio batek; hainbeste aldaketarekin, aspaldiko balioak galtzen ari direla diote besteek. Bigarrengean, metodologia eraldatzea alferri-

kakoa dela, helburua irakasleon "mentelogia" aldatzea izan beharko lukeela. "Denbora galtzeko txorakeria asko eta kontzeptu garrantzitsu gutxi; ez hainbeste irakaskuntza alternatibo bitxi." Sententzia irmoa laugarren ardoan. Bosgarrenenako, erabaki da asanblada handirik gabe eta egin gara metodo egokienaren eragile eta jabe.

Hori baitute gizarte-zientziek, gizarteko partaide guztiak bihur gaitzkeela gaiaren inguruko zientzialari. Baina lasai kamarada, ondoen bizi garenok, aldaketak aldaketa, Gabonetako oporrak gainean ditugu eta.*

felipe murillo



Erotikan Plax!

Azpeitiko Gaztelekuko hezitzailea da Alex Altolagirre. Hil honetan berari egokitu zaio Arremanitzeko kideak egindako galderei erantzutea.

Noiztik egiten duzu lan gazteekin?

Aurtengoa zazpigarren urtea dut. **Zein funtzio duzu Gaztelekuan?**

Nerabeen bidelagun izatea; nerabezaroko garai desberdinetan ditzuten kezkekin laguntzen saiatzen gara.

Nolako neskak eta mutilak ikusten dituzu?

Eremu egoki bat eskainiz gero, traturako mundialak dira eta gaitasun asko erakusten dituzte. Gure esku dago horiek indartzea.

Sexualitateaz hitz egiten duzue?

Gustuko gaia dute, eta jakin-min bezala beteta daude.

Sare sozialen garaian, elkarri begietara begiratzeko gelditzen al da tarterik?

Gero eta gutxiago, eta pena da. Baina nerabeak helduon isla dira.

ALEX ALTOLAGIRRE

Jaio. 31 urte.
Herria. Azpeitia.
Bizitokia. Zestoa.
Lanbidea. Hezitzailea.



Erotikan Plax! Sexu eta bikote aholkularitza: Sindikatu Zaharra, 2. solairua
www.azpeitikoudala.eus/sexu 688897920
Hitzordua, hilabetea: hilaren 15ean (16:00-19:00).

Erotikak ba al du tokirik Gaztelekuan?

Jolasaren presentzia etengabea da, eta plazer asko bilatzen da gertutasunean eta elkarrekiko kontaktuan.

Aniztasunaren aberastasunaren adibide bat?

Mutil mota desberdinak gero eta onartuago daude.

Maitasunean arrakasta izateko estrategiaren bat?

Maitasun ereduetan gehiegi ez sinestea.

Gurasoei, jendarteari, gomendio bat?

Afal ondoren har ditzagun hamar-hambost minutu elkarrekin hitz egiteko eta goxatzeko.

Gazteekin, lanean, pasatu

ohi duzun gustuko momenturen bat?

Erabiltzaile ohiak bisitan datozen uneak oso hunkigarriak dira.

Txoko erotikoa bat?

Sardiniako hondartzak.

Usain bat?

Parrilatik datorrena.

Edari inspiragarri bat?

Arlizetako ura.*

► ZE ONDA!

Antzerki Egoitza programa Kulturaz kooperatibak martxan duen sormen egonaldi bat da, eta urtez urte indarra hartzen ari da. Sormen egonaldietan antzerki konpainiei obra lantzeko antzokia eta beharrezko baliabide guztiak eskaintzen dizkiete, eta aurtan, adibidez, lau talde izan dira Azpeitian. Horietako bat da Ze Onda! Teatroa. 'Heriotza Bikoitza' antzerkia lantzen izan ziren joan zen maiatzean, hamabost egunez, eta duela gutxi berriro itzuli ziren obra Soreasu antzokian estreinatzeko. Heriotza lantzen dute obran, eta heriotzaren ondoren irekitzen diren ateez eta dauden aukerez hitz egiten dute modu zabalean. Argazkian, Miren Gaztañaga aktorea obra estreinatu aurreko entseguan.



Ideiatik obrara

Hiru urte dira Kulturaz kooperatibak sormen egonaldiak eskaintzen dituela. Antzerki talde ugari izan da herrian; oraintsu, Ze Onda! eta Hika Teatroa. 📝📷 Nora Alberdi

▼ HIKA TEATROA.

Hika Teatroa da aurten sormen egonaldia egiten Azpeitian izan den bigarren konpainia. Talde hori 'Txarriboda' izeneko obra ari da lantzen. Parranda eta itxurakeria nagusitzen diren ezkontza festa bat antzezten dute sei aktoreek. Egun horretan guztiak bihurtzen dira erromantikoitsu, txerri hipokrita, eta izugarritzko txarriboda bilakatzen da jaia. Bi asteko sormen egonaldia egin zuten duela aste batzuk. Argazkian, bi aktore obra entseatzen, Dinamoan.



► HEGOALDEKO BAKARRETAKOA.

Antzerki konpainia Azpeitira etortzen denean, Kulturazek eskaintzen dizkie baliabide teknikoak, espazioak, dietak, ostatua... Horregatik, etortzen diren lantaldeen beharretara egokitutako plana osatu dute kooperatibako kideek. Azpeitia da Antzerki Egoitza programa duen Hego Euskal Herriko herri bakarretakoa. Argazkian, Hika konpainiako kideak entsegua hasi aurretik.





▲ **BALDINTZA EGOKIAK ETA EROSOAK.**

Azpeitian kultur mugimendu ikaragarria dago. Horren erakusleetako bat dira antzerkirako dagoen tradizioa, Antzerki Topaketak eta sormen egonaldi eskaintza. Aktoreek ere miresmenez hitz egiten dute Azpeitiko errealitateaz. "Lanerako baldintza oso egokiak eskaini dizkigute, oso zainduta sentitu gara zentzu guztietan; bai artistikoki eta bai pertsona bezala. Guretzat erosotasuna da Azpeitira etortzea. Gainera, uste dut gaur egun Hego Euskal Herrian horrelako proiektuak martxa diren leku gutxi daudela", azaldu du Eneko Sagardoi aktoreak. Argazkian, Sagardoi eta Gaztañaga entsegu batean.

► **ERRUTINAREN OREKA.**

Hika taldeko kideek nekazaletxe batean egin dute lo sormen egonaldiak iraun duen bitartean. Goizean goiz esnatu eta Sanagustinen gosaldutik ostean, goiz osoa Soreasun pasatzen dute lanean. Esperientzia "bete-betea" izanik, konpainiako kideek diote asko eskertzen dutela egunero toki berean gosaltzea eta bazkaltzea, horrek "oreka" eta sortzeko erraztasuna ematen dielako. Egonaldiaren alde onez galdetuta, uneoro "talde lanean" aritzea eta "distentsio uneetan sortzen jardutea" aipatu dituzte. Dena den, deskonektatzeko aukera gutxi izaten dutela eta batzuetan egonaldia astuna egiten zaiela esan dute. Irudian, Agurtzane Intxaurrek 'Txarriboda' lanaren zuzendaria.





▲ IKUS-ENTZUNEZKOAK OHOLTZAN.

Heriotza Bikoitza obraren sormen prozesuaren zati handiengan, bi aktoreez eta zuzendariak gain, bideogile bat ere izan da. Izan ere, ikus-entzunezkoek protagonismo berezia dute lanean. Konpainiako kide bat kamerarekin mugitzen da oholtzan, bi aktoreak antzezten ari diren bitartean, eta ikusleek agertokiko telebistetan ikusten dituzte irudiak. Ze Onda! Teatroa taldeko kide bat kamerarekin grabaketak egiten.

▼ SORKUNTZA KOLEKTIBOA.

Ze Onda! taldeko kideek sormen prozesua talde sorkuntza gisa ulertzen dute. Taldeko kide guztiak izan dira sortzaileak eta bakoitzak bere ikuspuntua azaltzeko aukera izan du bidean. Taldeko kideek hasierako ideari tiraka, inprobisatuz, osatu dute obra. Soinua eta argiztapena ere garrantzitsuak dira antzerkian. Argazkian, Arantza Flores teknikaria estreinaldia baino lehen azken probak egiten.



▼ ELKARTRUKEA ERE BAI.

Sormen egonaldia ez da egonaldi huts bat, elkartrukea ere bada. Kulturaz kooperatibako kideek azaldu dutenez, harreman estuak egin dituzte antzerki taldeetako kideekin. "Asko ikasten dugu guk ere; sortzaileak zertan ari diren, zer behar dituzten eta guk zer baldintza ditugun ikusteko aukera izaten dugu", azaldu du Aitor Bengoetxea Kulturazeko kideak. Kooperatibak hiru baldintza eskatzen dizkie antzerki taldeei: prestutasuna izatea hedabideekin egoteko; herriko eragileekin –ikastetxeak, zahar-etxea...– hartu-eman izatea; eta estreinaldia edo emanaldi bat Azpeitian egitea. Argazkian, 'Txarriboda' obrako kideak oholtzan entseatzan. Otsailaren 27an estreinatuko dute lana Azpeitian.✱



Denboraren lanak

Azken hamarkadetan asko dira desagertu edo aldatu diren lanbideak. Batzuk joan ziren, isilean, baina ez oharkabeen. 📎 Ainitze Agirrezabala/Julene Frantzesena/Thintza Elustondo

Asko eta askotarikoak ziren orain hamarkada batzuetara arte ezin bestekoak ziruditen lanbideak. *Ezer ez da betirako* da Ken Zazpi taldearen abesti baten izenburua, eta, agian, egia izango da esaldi horrek dioena; izan ere, belaunaldi berriek ez dute ikusi amona alpargatak egiten edo osaba gizonei bizarra moztzen; edo ez dute ikusi izeba aterkiak konpontzen eta aitona elizako kanpaiak jotzen. Gaur egungo ume askok ez du jakingo zer den txorroskileroa eta ez du ezagutuko barkilleroa.

Ogibide asko galdu dira hamarkadaz hamarkada, eta beste batzuk galtzeko bidean dira. Ofizio berriak sortu dira, eta aurretik zirenak ordezkatu dituzte. Azpeitian ere badira ogibidearen galera bizi izan duten herritarrak, eta badira lanarekin segitzen duten arren, lanbidea galtzeko zorian dela sentitzen dutenak ere. Horietako batzuekin egon da Uztarrria.

ARGAZKILARIA

||| **Izen-abizenak.** Nagore Iriarte. ||| **Gaur egungo ogibidea.** Sumermerkatuko saltzaila.

“Iruditzen zait balio asko galtzen ari garela”

“Sekulako pena” dauka Nagore Iriartek (Azpeitia, 1973). 20 urteren ostean, Sanjuande-



Nagore Iriarte argazki estudioan. ||| Thintza Elustondo

gin zuen Urke argazki denda itxi egin behar izan du. Estudioko lan batzuk egiten jarraitzen du “bizioz”, baina jada ez da argazkigintzatik bizi. Egun, supermerkatuko langilea da. “Ez dut uste gure ofizioa desagertu denik, baina asko aldatu da, eta iruditzen zait ez dudala aldaketa horietara egokitzen jakin”.

Ofizioa bera desagertu ez bada ere, zati bat erabat galdu dela uste du. “Gazteek ez dute ezer inprimatzen. Oporretara joaten dira, 1.500 argazki ateratzen dituzte, eta ez dute paperera ezer pasatzen. Disko gogorretan gorde edo Hofmann albumak egiten dituzte”.

Ezkontzetako argazkiekin ere, gauza bera. “Esan izan didate ezkontzako argazkiak CD batean entregatzeko, eta nik ez dut horrela lan egiten. Nik beti album fisikoa egin izan dut, eta horregatik esaten dut agian ez dudala jakin egoera berrietara egokitzen”.

Pixkanaka konturatu zen, dendan egun osoa pasatu arren, bizpahiru argazki baino ez zituela inprimatzen. “Hil bukaeran kontuek ez zuten ematen, eta ez zuen merezi egun osoa han sartuta egotea. Lana egin eta lanaren fruitu hori ez badugu jasotzen...”

24 urterekin zabaldu zuen denda Iriartek.

Dioenez, beti gustatu izan zaio argazkiak ateratzea. "Jaunartzeko egunean kamera txiki bat oparitu zidaten, eta hura hartuta joaten nintzen toki denetara. Beti berdin nintzen: 'Ama, karreteak daukat errebelatzeko...! Zenbat errieta entzun behar izan nuen etxean!'. Argi dio: "Disfrutatu egin dut argazkiak ateratzen".

Hala ere, azken aldian "oso ezkor" dagoela nabarmendu du. "Lanaren beherakadaz gain, iruditzen zait balio asko galtzen ari garela. Horien artean, sentsibiltatea. Esan izan didate: 'Jaunartzeko argazkiak atera behar dizkiot semeari, baina neuk aterako dizkiot, badut-eta kamera on bat'. Hori niri esaten didate, eta mina ematen du. Ba hori pentsatzen baldin baduzu ere, isil zaitez! Hori gauza askorekin ari zaigu gertatzen, eta ito egin nintzen momentu bat iritsi zen. Gaixotzen ari nintzen, eta hori da gertatzea nahiko nukeen azkena. Esan nuen: 'Honaino iritsi gara'".

Diruz lortu ez duena, beste zerbaitetan irabazi du Iriartek. "Beti saiatu naiz gauza txar guztietatik alde positiboa ateratzen, eta lagun pila bat egin dut ibilbide honetan. Jendearekin ez daukat batere arazorik, eta uste dut jende askorekin, ume askorekin batez ere, horregatik egin dudala hain harreman estua". Irribarre horrekin, ez dauka bi aldiz esan beharrik.

ESNE SALTZAILEA

||| **Izen-abizenak.** Joxemai Odriozola. ||| **Gaur egungo ogibidea.** Esne saltzailea eta baserriarra.

"Beti aldatzen ari gara, baina beti presaka gabilta"

Umea zela, amari lagunduz hasi zen esne saltzaile lanetan Joxemai Odriozola (Azpeitia, 1956). "Astoarekin ibiltzen ginen", dio barre artean, eta banaketarako garraibidea aldatu badu ere, oraindik esnea saltzen jarraitzen du etxetik. "Eskolara bidean egiten nuen banaketa goizero. Sasoi hartan etxeetako sukaldeetara joaten ginen esnea ematera, eta igo-gailurik ez zegoenez, marmitarekin igotzen nintzen eskaileretan gora". Egunero-egunero egiten zuen banaketa, "igandeetan ere bai".

Ordutik gauzak "ikaragarri" aldatu badira ere, ogibide berarekin segitzen du azpeitiarrak: "Etxean ganadua dugu, eta hortik eta baratzetik bizi gara. Aldaketetan gutxienekoa da astoa; izan ere, salmentak ere zeharo aldatu dira; jendeak lehen aste osorako esnea erosten zuen, eta, orain, ez". Azpeitiarrak dio gaur egun "oso zaila" dela bezero finkoak izatea. "Lehen urte osorako zen hartu-eman; gaur



Joxemai Odriozola marmitarekin eta barazkiekin. ||| **Julene Frantzesena**

egun, 'bihar ez hadi etorri!' edo 'bihar hiru litro esne beharko dizkiat postrea egiteko!' esaten dute egun batetik bestera". Esnearen salmentatik ateratzen den diruarekin soilik ezin dela bizi adierazi du. "Bezeroei banatzen diet esnea, eta sobratzen dena Gurelesari saltzen diot. Barazkiak ere saltzen ditut, bizitzeko".

Odriozolak dio ez dakiela nola moldatu diren egoera berrietara. "Hain azkarra izan da guztia... Beti aldatzen ari gara, baina beti presaka gabilta. Baserria asko aldatu da, eta mekanika aldetik ere asko aurreratu da. Lan neketsu gutxiago dugu orain, baina lana, bere horretan, izugarri".

Gaur egun, Azpeitian esne saltzaile lanetan aritzen den pertsona bakarretakoa da Odriozola, eta sumatu du lanbidearen gainbehera.

||| **"Hain da tristeza gure egoera, seme-alabei esan behar al diet lan honetan segitzeko?"**

JOXEMAI ODRIOZOLA
esne saltzailea

"Duela hamarkada batzuk Azpeitiko baserri ugaritan ekoizten zuten esnea. Norbanakoei eta enpresei saltzen zieten, baina den-denak ez badira, askok utzi diote lan horri. Horrek

esan nahi du zerbaitetan ez dela asmatu". Esne saltzailearen ustez, erakundeek parez pare jarri dituzte "baserriak eta abeltegiak", eta hor dago koska. "Duela 40 urte litroa 55 peze-ta ordaintzen ziguten —egungo 32 zentimo inguru—; orain, berriz, 0,28 zentimo ordaintzen digute, lehen baino gutxiago. Baina zenbat igo da pentsua urteotan? Eta gasolina? Erakundeek ematen dizkigute diru laguntzak, badakitelako ez dugula ezer irabazten". Odriozolaren ustez, "tristeza da" horrela ibiltzea: "Hori horrela izanik, seme-alabei esan behar al diet lan honetan segitzeko?"

Halere, Odriozolak eskertzen du erakundeak lehen sektorea sustatzen ahalegintzea, eta nabarmendu du gaur egun gazte askok baduela bertakoa kontsumitzeko kontzientzia: "Ez da gauza bera baratzerara joan, tomate bat hartu eta hura jatea, edo Leridatik ekarritakoa dendan erostea. Bolada batean lehengo ohitura guztiak alde batera utzi genituen kolpera, baina hasi gara berriz kontzientzia hartzen".

LIBURU DENDAREN JABEA

||| **Izen-abizenak.** Ana Artetxe. ||| **Gaur egungo ogibidea.** Erretiratu.

"Jendeak irakurtze du, baina beste modu batean"

Txomin Olalde 1983an zabaldu zuen Iratzar liburu denda Azkoitian. Haren emazte Ana Ar-



Ana Artetxe Azkoitian, Elizatarikoa zubian. ■■Julene Frantzesena

tetxe (Azkoitia, 1948) ere bertan hasi zen lanean, eta handik hiru urtera ireki zuten Azpeitian izen bereko liburu denda; han Miren Leonet aritzen zen lanean, eta hark herritarrekin hartu-eman handia zuela azaldu du Artetxek. Haren arabera, Azpeitiko denda zabaldu zuten garai-ko egoera gaur egungoaren antzekoa zen. "Iratzar zabaldu genuenean, ez dut uste beste liburu dendarik zegoenik herrian. Ilusio ikargarriarekin ireki genuen".

Urteek aurrera egin ahala, gauzak aldatu egin zirela dio azkoitiarrak. "Ilusio ikargarritz zabaldu genuena, pena izugarriarekin itxi genuen. Internetek aldaketa ekarri du, hori ez dago ukatzerik". Dena den, ez zen Internet izan denda itxera bultzatu zituen arrazoiak: "Alokairuan geunden, Foru Ibilbidean lanak egin behar zituzten, errazagoa zen Azkoitiko den-

■■"Bideoen kontu hori hilda dago, burutik pasatu ere ez zait egiten lanbide horretara itzultzea"

JULIAN AZKUNE

bideoklubeko jabe ohia

darekin segitzea... Gauza asko pilatu ziren, erretiroa hartzeko hilabete gutxi falta zitzaizkigun, eta itxi egin genuen; uste baino lehenago, egia esan". Artetxek badu nostalgia puntu bat: "Pena handiarekin laga genuen, baina ez zen zentzuzkoa han jarraitzeagatik jarraitzea. Gainera, ikusten zen zer atari alde zetorren..."

Egun "arraroa" egiten zaio Azpeitian liburu dendarik ez egotea Artetxeri; izan ere, hark dio Azpeitia kultura arloan indartsu dagoela. Uterako saiatu ziren negozioa norbaitek har zezan, baina "ahaleginak eginagatik" ez zuten lortu. "Pena da Azpeitian liburu dendarik ez egotea".

Herrietako liburu denden egoera ekarri du gogora Artetxek. "Azpeitia motz gelditu da, baina beste herri batzuk ere bai." Duela gutxi Iratzarreko komertzial izandako batek hala esan ziola azaldu du: "Uste dut garai onenean itxi zenuela". Eta ados dago haren esanarekin. "Auskalo zer panorama ikusiko dituzten herrietako liburu dendetan. Hirietakoak libratuko dira, agian, baina gogorra izango da gero gaur egun liburu denda bat izatea".

Iratzarreko jabe izandakoak uste du jendearen ohiturak "aldatzen" ari direla. "Begira, pentsatzen genuen liburu elektronikoei auskalo zer ekarriko zutela, paperezko liburuak galdu egingo zirela, baina jendeak segitzen du paperean leitzen. Hori bai, arrazoi bategatik edo besteagatik salmentak beheraka joan ziren". Azkoitiarraren aburuz, jendearen eros-teko ohitura da aldatu dena: "Jendeak ez ditu liburuak lehen bezala erosten. Liburutegi onak ditugu, aukera handia dago horietan... Jendeak irakurtzen du, baina beste modu batean".

BIDEOKLUBAREN JABEA

■■Izen-abizenak. Julian Azkune. ■■Gaur egungo ogibidea. Tabernaria.

"Antzematen nuen gainbehera zetorrela"

Gaur egun batere ez dagoen arren, guztira, sei bideoklub izan ziren Azpeitian, Julian Azkunen (Azpeitia, 1971) arabera. "Paulo VI auzoan, Sanjuandegin, plazan, Charles Chaplin tabernaren ondoan, Damason eta nik neukana, Artzubian". 9 urtez zabalik eduki ostean, duela 8-9 itxi zuen negozioa Azkunek. Itxi zuenerako, taberna zabaldu zuen Landetan, eta bideoklubean lana gutxitzen ari zela ikusi zuenez, hura itxi eta tabernaren aldeko apustua egin zuen.

Gero eta bezero gutxiago joaten zela dendara konturatu zen Azkune. "Lehen, telebistan betiko lauzpabost kate ikusten genituen, baina, orain, askoz ere gehiago daude, baita pelikulen kateak ere. Internetak ere eragin digu; jendeak filmak deskargatu egiten ditu orain, eta ez du haiek ikusteko ordaindu nahi



Julian Azkune egun lan egiten duen tabernan. ■■Iñtza Elustondo

izaten". Lehen, gainera, taberna batzuetan iluntzeetan pelikulak emateko ohitura zutela gogoratu du, eta ohiko bezeroak zirela taberna batzuetako jabeak. "Orain, taberna gehienetan futbola jartzen dute".

Gustuko zuen bideoklubeko lana Azkunek. "Lan eroso eta polita zen. Filmak ikusten nituen jendeari gomendatzeko, bezeroekin hitz egiten nuen... Esfortzu handirik egin gabe, gustura aritzen nintzen". Jendearekin egin zuen harremana da gordetzen duen oroitzapenik politena.

Azpeitian egun ez dago bideoklubik; horrek argi erakusten du zein den ofizioaren egoera. "Donostian, Zarautzen... leku guztietan ari da gauza bera gertatzen. Negozioren batek jarraitzen du irekita, baina, pixkanaka, desagertu egingo da lanbidea. Bideoen kontu hori hilda dago, burutik pasatu ere ez zait egiten horretara itzultzea. Antzematen nuen gainbehera zertorrela, eta horregatik hasi nintzen beste bide batzuk bilatzen".

Landetako taberna hura ere itxi zuen Azkunek, eta, egun, Garmendipe tabernako jabea da. Gustura aritzen da, bere saltsan. "Baditut beti etortzen diren bezero batzuk, eta haiei hamaketakoa atera, kontu batzuk esan... Giro polita sortzen da tabernan, etxekoak bezala dira ja". Dioenez, tailerreko lana probatu bazuen ere, jendearekin lan egitea da gehien gustatzen zaiona. "Orain, gustura nabil, eta loteria tokatzen bazait, oraindik eta hobeto".

BIZARGINA

||| **Izena-abizenak.** Inaxio Lapeira. ||| **Gaur egungo ogibidea.** Erretiratu.

"Hiesa zabaltzean, bizarra kentzeari utzi genion"

Amaren aldeko aitona Joxe Mari Eliasengandik oinordetzan jasotako ogibideari mende erdia eskaini dio Inaxio Lapeirak (Azpeitia, 1935), eta ibilbide luze horretan Azpeitiko eta inguruko herrietako makina bat gizoni kendu die bizarra eta moztu die ilea. "15 urterako hasi nintzen aitonari laguntzen, Elizkalean, parrokiaren aurrean zuen bizartegian. Bezeroei xa-



Inaxio Elias, bere etxeko egongelan. ||| **Ainitze Agirrezabala**

boia ematen nien nik, eta, gero, aitona kentzen zien bizarra. Pixkanaka joan nintzen ofizioa ikasten". Lapeiraren soldatapeko lehen lana, ordea, ez zen bizartegikoa izan. "Damasonean hasi nintzen tailaketan, baina ez nengoen gustura, eta 18 urterekin lana utzi nuen, bizartegian hasteko. Oraindik gogoan dut lehenengoz bizarra Ramon Etxeberria *Prakaundi*-diri kendu niola".

Hasierako urteetan, jaiegunik gabe, astelehenetik igandera egiten zuen lana Lapeirak. "Bizartegia zabaltzerako, 09:00etarako, zain izaten nituen bezeroak atean. Igandeetan, berri, 06:00etan hasten nintzen lanean, mezatara joan aurretik kentzen bainien bizarra bezeroei". Zumaiaetik ere etortzen zitzaizkion bezeroak, eta gaineratu du Zestoako Bainuetxera ere joaten zela, han ostatu hartuta zeudenei ilea mozttera eta bizarra kentzera.

Bezeroei zenbat kobratzen zien ez du "gogoan" azpeitiarrak. "Aitona arduratzen zen kobra-tzeaz. Niri eskupekoa ematen zidan jaietan, pezeta bat edo bi, izan genuen mugimenduaren arabera. Aitona erretzaile amorratua zen, eta pipa errez egiten zuen lan. Gainera, postaria ere bazen, horregatik gara gu *Kartero*koak, eta goizean garaiz gutunak banatu on-

doren zabaltzen zuen bizartegia. Gero, ordea, gaixotu egin zen, eta neuk hartu nuen negozioaren ardura, 20 urterekin".

1980ko hamarkadaren hasieran, hiesa zabaltzen hasi zenean, bezeroei bizarrak ez kentzeko aholkatu zieten bizarginei. "Bizarra kentzeari utzi genion, eta pixkanaka, jendea makinarekin etxean hasi zen bizarra kentzen. Hala ere, banituen betiko bezero batzuk, Epi Larrañaga, esaterako, eta haiei nahitaez neuk kentzen nien bizarra".

Bizargin eta ile-apaintzaile aritu zen garaiko "oroitzapen onak" dituela dio Lapeirak, baina "aldian-aldian, amorrazio batzuk" ere jasan behar izan zituen. "Ile-apaindegia ixteko bost minutu falta zirela igual sartzen zitzaidan bezeroren bat".

||| "Oraindik gogoran dut lehenengoz bizarra Ramon Etxeberria 'Prakaundi'-ri kendu niola"

INAXIO LAPEIRA

bizargina

**OBRA ZUZENDARITZA ETA GREMIOEN KOORDINAZIOA
AURREKONTUAK ETA OBRA NEURKETAK
IREKIERA ETA JARDUERA BAIMENAK
ERAIKINEN IKUSKATZE TEKNIKO (ITE)**

JON ESNAOLA
ARKITEKTO TEKNIKO
M: (+34) 647 654 506
T: (+34) 943 15 7000
E: info@jonesnaola.es
www.jonesnaola.es

Erretiroa hartzeko sasoia iritsi zitzaionean, ordea, lanean jarraitzea erabaki zuen: "Nik utziz gero, nora joan behar zuten bezero haiek guztiek? Lanbide hura niretzat ez zen lan hutsa; bizipoza eta entretenimendua zen". 68 urte betetzear zela, ordea, iktusak eman zion, eta halabeharrez utzi behar izan zuen gizonak bizartegiko lana.

TELEFONISTAK, ATERKI EGILEAK ETA ORGANO EGILEAK

■ **Taldeak.** Arantxa Segurola eta Maritere Aldalur. ■ **Gaur egungo ogibidea.** Erretiratuak.

"Teknologia berriak medio, gauzak asko aldatu ziren"

Duela urte batzuk, emakumeek etxetik kanpo lan egiteko aukera gutxi izaten zuten. Neska-me edo hotelen batean, horietatik ziren bi aukera nagusiak. Telefonikaren irekierak, ordea, emakumeentzat lanpostu ugari sortu zuen Azpeitian. Maritere Aldalur (Azpeitia, 1948) eta Arantxa Segurola (Azpeitia, 1948), esaterako, bertan aritu zire lanean, 18 urterekin. "Tentsio handiko lana" zela adierazi dute. Aldalurren esanetan, "diziplina zorrotza" izateaz gain, uneoro zelatari bat zuten. "Egundoko errietak egiten zizikigun!". Operadoreak ziren Aldalur eta Segurola, eta deiak erantzutea zen beraien ardura. Segurolak kontatu du behin eta berriz errepikatzen zituzten esaldiak honako haiek zirela: "*¿Que poblacion desea?, ¿Que numero desea en...?, ¿Que numero tiene su telefono? Al habla*". Aldalurrek dio asteburuak, igande arratsaldeak batez ere, "erotze-



Arantxa Segurola eta Maritere Aldalur, parrokiako organoaren ondoan. ■ **Ainitze Agirrezabala**

koak" zirela. "Extremadurako (Espainia) etorkin asko bizi zen herrian, eta etxekoekin hitz egin nahi izaten zuten". Bi urteren ondoren, ez-kontzera zihoala eta, Aldalurrek lana utzi zuen; Segurola, berriz, hiru hamarkadaz aritu zen, erretiroa hartu zuen arte.

Telefonicakoa, ordea, ez zen izan bi emakumeen lehen lana. Eskola-ziurtagiria eskuratu eta Zentenarioko etxeetan zen guardasoldegian hasi ziren biak lanean, 14 urterekin. "Neska kozkorak ginen, baina astean sei egunetan egiten genuen lana, eta 100 pezeta irabazten genituen", kontatu du Segurolak. Aterkien armazoiei oihalak banan-banan jostea, muntatzea eta aterkia plantatzea ziren beren egitekoak. Aldalurren esanetan, enpresako arduraduna Kontxu Odriozola zen, eta hark zapatueta ilea kardatzen eta orrazten zien.

Telefonican hasterako, Sierben komentua- ren ondoko organo enpresan ere aritu ziren denboraldi batez Aldalur eta Segurola. Azken horren esanetan, besteak beste, Lourdesko basilikarako organoa eta Madrilgo Teatro Realakoa egin zituzten.

Txirbilarentzat eta patatarentzat zakuak egiten aritutakoa da Segurola, eta alpargatak josten jardundakoa Aldalur. Neskame ere egin zituzten bi urte Donostian, baina "teknologia berriak medio, gauzak asko aldatu" zirela dio Aldalurrek, eta bata bestearen atzetik, desagertzen joan ziren lanbide haiek. "Ez dakit zer genuen, baina lanean aritutako enpresa guztiak itxi ziren". Nolanahi ere, ofizio bakoitzak "bere berezitasuna" zuela adierazi dute bi emakumeek, eta oroitzapen "oso onak" dituztela diote. ✱

KIMU BAT GARDEN

KIMU BAT 25 urte
Urrestila bidea. Azpeitia
943 15 00 85



ATERA ARGITARA
ZURE EDERTASUNA
GUREKIN

IXIAR SANJUAN
Iecapandegia

Helbidea: Lariokoa Inazio hiribidea 13, beheko
Telefonoa: 943 81 02 17



AT Gure errepideak mantentzeko baliabide gehiago.

Hemen da, kamioientzat bakarrik sortutako lehenengo peaje sistema adimenduna.

Peaje sistema berriarekin, gipuzkoarrek—ez airen kamioiariak ere gure errepideen mantentze lanetarako dute, modu zuzenean, lehen aldiz. Sistema jasangarri honek, N-1eko trafikoa arinduko du. Sistema honek kutsadura akustikoa % 25 murriztuko du, gelditu gabe pasatzeko aukera ere emanez.

B

iztanleria goraka, jaiotza tasa beheraka eta heriotzena goraka. Azpeitiko azken urteetako errealitatea da hori. Eustaten 2017ko datuen arabera, 14.817 biztanle ditu Azpeitiak. 2016an 134 ume jaio ziren, eta 156 herritar hil. Datu horiek kontuan hartuta, zer ari da gertatzen demografiarekin? Portaera demografiko horiek badute arrazoi jakinik?

Asko dira biztanleriaren beherakada dela eta kezka agertu duten adituak; beste batzuk gizartea gero eta zaharragoa delako daude kezkatuta; eta beste batzuek jaiotza tasaren beherakadan jarri dute arreta. Gaindegia kaleratutako datuen arabera, argi dagoena da joera horiek mantendu egingo direla datozen urteetan: Euskal Herriak biztanleria galduko du, euskal gizartea zahartu egingo da eta jaiotza tasak bere horretan segituko du.

Badira, baina, datu horiek "kezkatzeak ez" direla dioten adituak. Horietako bat da Marta Luxan (Bilbo, 1970) soziologo, demografo eta EHUKo irakaslea. Hark dioenez, "aldaketak" izan dira portaera demografikoetan, hala nola adin egituraren. "Lehen piramidea deitzen zen horrek beste forma bat du orain". Portaera demografikoek giza portaeretan eragina dute, eta alderantziz ere gertatzen da. "Gerra Zibilaren ostean, adibidez, igo egin zen jaiotza tasa. Portaera demografikoak malguak dira".

Luxanen arabera, biztanleria tasaren gorakadaren arrazoi nagusia migrazioa izan da XXI. mendean Araba, Bizkai eta Gipuzkoan. Gainera, jaiotza tasa jaitea eta heriotzena haztea "logikoa eta espero beharrekoa" dela uste du.



Adin egituraren grafikoak piramide forma zuen duela urte batzuk; gaur egun, berriz, ez. ||| **Julene Frantzesena**

"Adin nagusiko jende gehiago dagoenez, hiltzeko probabilitatea handiagoa da".

Ugalkortasuna jaitsi dela baieztatu du Luxanek, baina argi du konparaketa zerekin egiten den dela gakoa: "1970eko *baby boom*arekin alderatzen badugu, murriztu egin da ugalkortasuna". Gainera, haurrak izateko adinean atzerapena izan dela dio: "Atzeratu da, baina uste duguna baino gutxiago. XX. mendean jaiotako emakumeek ez zituzten umeak 20 urterekin izaten; 27 urte-edo da batez bestekoa. Atzerapena egon da umeak izateko adinean,

baina hori ere *baby boom*arekin alderatzen dugu. Sasoi hura oso arraroa izan zen; izan ere, emakumeek ez zituzten haur gehiago izan, gertatu zena da belaunaldi desberdinetako emakumeek batera izan zituztela umeak".

Soziologoak adinen birdefinizioa ugalkortasun adinaren atzerapenakin lotu du. "Ez da gauza bera gaur 20 urte izatea, duela 10 urte adin hori izatea edo duela 40 urte. Eta portaera demografikoak horrekin lotuta daude. Jendea nola iristen da orain erretiroa hartzera? Lehen, asko, pott eginda".

Aldatzen doan herria

Demografia portaerak aldatu egin dira azken urteotan, eta alarma piztu du zenbait datuk. Horiek ez direla kezka iturri dio Marta Luxan demografoak. 📞📷 **Julene Frantzesena**

Saritutako dantzak gurean

Kukai dantza taldeak eta La Veronalek ‘Oskara’ ikuskizuna eskainiko dute Soreasun, abenduaren erdian. Jon Maya dantzariak ondutako lanak hiru Max sari irabazi ditu.  **Ainitze Agirrezabala**

Bi koreografia unibertso ezberdin batzen dituen *Oskara* ikus-kizunak Azepeitian du hitzordua. Jon Mayak zuzentzen duen Kukai dantza taldeak eta Marcos Morau koreografoaren La Veronal konpainiak elkarlanean sortutako lanak Euskal Herriko kultura tradizioalean du oinarria eta sormenerako abiapuntua. Era berean, egungo abangoardiako artisten ikuspegitik sortutako artelana da.

Emanaldian bost dantzarik parte hartuko dute, eta ikuskizunak oinarri ditu euskal kulturaren eta mitoen hainbat atal, jatorritik eta aro garaikideraino. Horretarako, sinboloz eta ikonografiak betetako ibilbide plastiko eta emozional bat marraztuko dute. Bestalde, lan honetan hizpide izango dituzte irudiaren botereari buruzko La Veronaleren ikerketak, iru-

||| DATUAK |||

III Zer. Kukai dantza konpainiaren 'Oskara' ikuskizuna. **III Eguna.** Abenduak 15 (ostirala).
III Odua. 22:00 **III Tokia.** Soreasu antzokia.
III Antolatzailea. Kulturaz eta Kukai dantza konpainia.

diaren, dantzaren eta testuaren artean labirinto bat trazatuz.

Sari ugari

Oskara lanari esker, hiru Max sari jaso ditu Kukai taldeak aurtin: dantza ikuskizun onenarena, dantza talde onenarena eta jantzien atalekoa. Gainera, Huescako (Espainia) Nazioarteko Dantza eta Antzerki Azokan ikuskizun onena izendatu zuten.✧

III 'OSKARA' OBRA, ZENBAKITAN

3 Max sari. Dantza ikuskizun onenaren, dantza talde onenaren eta jantzien ataleko sariak jaso ditu Jon Mayaren azken lanak.

10 eurotan. Ikuskizunerako sarrerak egunean bertan eros daitezke leihatilan, eta aurrez ere bai, *kulturaz.eus* webgunean.★



'Oskara' dantza ikuskizuna eskaintzen, hainbat artista. **||| Kuaki dantza konpainia**

|||BESTERIK|||

1 Bertso saioa, Txapelen omenez

||| **Eguna.** Abenduak 20
(asteazkena). ||| **Ordua.**
22:00etan. ||| **Tokia.** Soreasu
antzokia. ||| **Antolatzailea.**
Ernariarritz bertsozale elkarte.

2 Gabonetako haur parkea

Ettxeko txikienei zuzenduta, giza mahai-futbola, puzgarriak, jolasak eta beste hainbat sorpresa izango da parkean. Sarrera 2 euro kostatuko da, eta doan lortu ahalko da Bertan elkarteko saltokietan.

III Eguna. Abenduaren 26an,
 27an, 28an, 29an eta 30ean, eta
 urtarrilaren 2an, 3an eta 4an.
III Odua. 16:00etatik
 20:00etara. **III Tokia.** Izarraitz
 pilotalekua. **III Antolatzailea.**
 Bertan merkatarien elkarte.

3 San Silbestre lasterketa

Kirol pixka bat eginez urteari adio esatea baino plan hoberik ez da. Proba nagusiak sei kilometroko ibilbidea izango du, baina aurretik, 10:00etan hasita, hainbat proba izango da, mailaka banatuta.

||| **Eguna.** Abenduak 31 (igandea).
||| **Ordua.** 12:00. ||| **Antolatzailea.**
Xeye atletismo taldea.✘

|||Azpeitiko ekimenez informazio
gehiago: uztarria.eus/agenda

Ez zen, tovarich, hain horrela

Uste dut gaiztakeriarik gabeko jendeak iragana idealizatzeko joera dugula. Gauzei eta jendeei begirada samurrak egiten dizkiegula. Iritzi ugaritasuna ia haserre bezala begiratzeko derrigorra nagusi den garaiotan, ez dago batere soberan samurtasuna. Hala ere, idealizazioa ez da, ziurrenik, jarrrerarik zintzoena, desioen eta nahien adierazpen egoki bat den arren.

Roman Goupilen film batek orainaldiari eta iraganari buruz eragindako burutazioak agertu zizkigun, *Hitzan*, Miren Gorrotxategi idazleak. Bi mutiko trokista sutsuren bizipenak oinarri, haien konpromiso politikoa eta mundu berri batekiko zuten ametsa miresgarri bilakatzen zitzaizkiola kontatzen zigun. Gazteei sumatzen dizkien kezka eta lehenetasunak ez ditu maiteegi eta gizarte, oro har, akritiko batean bizi beharrak zaputza eragiten dio. Aldean, iragana bizigarriago edo motibagarriagoa ikusten du. Ez diot arrazoirik kenduko, merkatuak irentsita gaude eta esparru txiki propio konpartituak, nork bereak esan nahi dut, sortzeko kapaz ez bagara gizakia animalia arrazional kontsumitzaile huts besterik ez da izango.

Iraganari buruzko kontsiderazioa, egoera konkretu batzuen inbidia sano eta justifikatua salbu, onberaegia dela esango nuke. Guztioi bizi ditugu nostalgiak eta guztiok bizi arazten ditugu nostalgiak, bakoitzaren gezur txikiak. Pasadizo pertsonal txiki eta urriak kategoriatu bihurtzeko joera geure iragana desitxura dezake. Asko esan daiteke ona gaurko gazteez, eta asko txarra orduko, funtsean ez baitira oso ezberdinak.

Gutxienak, gauza bakoitzean

Ginenak ginen gauza bakoitzean, ez gehiago. Gutxienak gizarte kezketan ia itoan ibiltzen zirenak, gutxienak arte goseak bultzatutako gaitetasuna bizi zutenak, gutxienak konpromiso politikoaren garra bereganatzen zutenak. Ugari diskoteketako bezeroak, ugari



|||||||ramon etxezarreta|||||

|||Horretara jarritakoak zerbait izaten ginen beti, trokistak, komunista marka diferenteak...

futbolzaleak. Kubalibrea ere, paradoxa, zabal orduantxe etxekotu zela esango nuke. Baina, zorionez, historiaren filtroan zine ona, literatura ona, kontzientzia politikoa, demokrazia eta ametsetako kezka zirenak pasatu dira. Ez oso ondo egindako gauzak, baina bai gogo zintzo, asmo onez eta kezka sakonez egindako ahalegin noble eta duinak. Egungoek ere izango dute iraganik!

Bitxia egiten zait artikuluan trokismoarekiko agertzen den begirunezko mira. Ez gaizki iruditzen zaidalako, gaur onartzen den iraganaren irakurketa bakarria abertzale nazionalista denean, aipua txokantea egiten delako baizik. Horretara jarritakoak zerbait izaten ginen beti, trokistak, komunista marka diferenteak, marxista leninista izatea tokatu zitzaidan niri. Baina, gehiengoari, orduan gehiago, guztiok ematen genion beldurra edo barregura. Ez beste. Gauzak, tovarich, ez ziren hain horrela, zoritxarrez.✘



|||HITZ GEZIDUNAK||||||||||||||||



	Euskal lurraldea	▼	Jariakin mehea	▼	Sos	▼	Gizon izena	▼	Bokala	
	Frantziako lurraldea		*		Argi		Emakume izena			
	▶		▼		▼		▼		▼	
	Ahuntzen arrak	▶							Burua, agintaria	
	Galderak									
Galiziakoa	▼	*	▶	▼					▼	
Zuzhaitz luze		Unatu, akitu								
▶		▼			Bokal mehea	▶	Burdinola	▶		
					Artsenikoa		Zuen, hari			
Bizkaiko ibaia	▶			Etzanda nago	▶	▼			Kontso-nantea	▶
Tokia				Kanpo, landa					Azkena eta lehena	
▶			▼		Putre	▶		Zaren hori	▶	▼
					Galdetzaile bat			Zelai		
Koipe	▶				▼	Hitz, berba	▶	▼		
Jaurti						Hektarea, laburrean				
▶				Oihala	▶	▼			Bokala	▶
				Bokala					Potasioa	
Une edo era egokian	▶			▼				Ezeza	▶	▼

* Azpeitiar pailazoa



Egilea: Luma

||| SUDOKUA |||

	2				7			
					1	8		6
6		5		9				
1		4	7	5		2		3
5								7
7		3		8	6	4		1
				7		9		8
8		1	9					
			8				7	



|||UZTARRIAREN LEHIAKETA: JEROGLIFIKOAK|||||||

|||JEROGLIFIKOEN SOLUZIOAK BIDALTZEKO EPEA. Abenduak 18 (astelehena) |||NORA BIDALI ZURE ERANTZUNA. Perez Arregi plaza 1, behea (Azpeitia) edo lehiaketakutztarria@gmail.com e-postara |||IRABAZLEARI SARIA. Kutxillo urdaitegiaren produktu sorta |||PARTE HARTZEKO BALDINTZA. Uztarria Komunikazio Taldean bazkide izan behar da eta jergoglifikoaren irudien azpiko galderei erantzun behar zaie.

1



2



|||LEHIAKETAREN ERANTZUNAK|||||||

1 NESKA POLITA

2 ZER IZAN NAHI DU

|||BAZKIDEAREN IZEN-ABIZENAK

|||HARREMANETARAKO TELEFONO ZENBAKIA

|||SOLUZIOAK|||||||

HITZ GEZIDUNAK

A	K	U	●	N	V	R	E	K	U	V	●
I	●	V	N	U	H	E	●	A	T	O	B
S	V	L	O	S	●	Z	T	N	V	G	●
U	Z	●	I	V	S	●	A	U	K	E	L
G	●	V	Z	T	V	N	●	A	E	L	●
A	L	O	●	I	●	A	I	V	T	N	A
N	E	R	U	G	R	V	B	I	●	G	●
●	K	V	R	R	E	K	V	●			
V	I	N	I	V	T	E	R	B			
●	M	●	D	●	E	●	V	●			

SUDOKUA

F	L	I	E	9	8	6	S	Z
S	9	E	Z	F	6	I	L	8
8	Z	6	S	L	I	9	F	E
I	S	F	9	8	Z	L	6	L
L	6	9	F	I	E	Z	8	S
E	8	Z	6	S	L	I	9	F
Z	S	L	8	6	F	S	I	9
9	F	8	I	Z	S	L	E	6
6	I	S	L	E	9	8	Z	F

AURREKO HILEKO JEROGLIFIKOAK

1

Pistatxoa

2

Kaxiano

|||UZTARRIAREN AZAROKO LEHIAKETA|||||||

IRABAZLEA



Adei Belar.
Uztarria Komunikazio Taldeko bazkidea da aldizkariko 199. lehiaketaren irabazlea. Kutxillo urdaitegiak emandako produktu sorta irabazi du sari gisa. Argazkian, lehiaketaren irabazlea Kutxilloren oparia eskuetan duela.



Urdalazplikoak, hestebeteak eta gaztak

Etxeko berezitasuna:
Ezkur urdalazpliko Iberikoa

Eñaut: 656 79 14 19
Oier: 618 24 01 73
kutxillo@gmail.com
Damaso Azkue 6

ukabi

i n f o r m a t i k a

Salbe auzunea, 39 behea ☎ 943 15 01 01

www.ukabi.com

Gabon Zoriontsuak
eta URTE BERRI ON ★★★



Klima aldaketa

Bizitzako esparru askori eragiten dio klima aldaketak, hala nola nekazaritzari, abeltzaintzari eta arrantzari. Begibistakoa da udaberria eta udazkena desagertzen ari direla eta neguak eta udak gero eta antz handiagoa dutela. Horren eraginez, uztak aldakorrek izaten dira.

Nekazaritza klima aldaketaren biktimak da, baina negutegi efektua duten gasen produkzioaren faktore laguntzaile ere bada. Arazo ekologiko garrantzitsu askorekin erlazio zuzena dute nekazaritza jarduerak: luraren erosioa, ongariaren gehiegizko erabilera, deforestazioa...

Abeltzantza ere sostengaezina da; haragi industria munduko kutsatzaile handienetakoa da. Kilo bat haragi ekoizteko, 20.000 litro ur inguru behar dira. Arrantza ere klima aldaketaren biktimak da: ozeanoen tenperatura gero eta altuagoa da, eta izoztutako eremuak urtzen eta itsasoetako ur mailak igotzen ari dira. Gainera, arrantza teknika batzuekin itsasoak suntzitzen ari gara. Eta ezin ahaztu jaten ditugun elikagai asko produzitzeak, biltegi-ratzeak, ontziratzeak eta garraiatzeak negutegi efektua duten gasak askatzen dituela.

Lehen sektoreko teknika batzuk aldatu egin behar dira, eta konponbideetako bat guk egunerokoan etxean aldaketak egitea da. Posible da produktu ekologikotatik, bertakoetan eta garaikoetan oinarritutako elikadura kontsumo jasangarria egitea. Hori ere, gure esku dago!*



aitziber aizpuru

PEDRO ETXEBERRIA hondeamakina gidaria



1. Noiz hasi zinen?

Hogei urte dira neure kontura hasi nintzela. Aurretik, beste hamar Andres Aizpurrekin.

2. Zer lan egiten duzu?

Obra publikoak. Baserrirako bideetan asko, Azpeitiko Udalarentzat.

3. Zuloa egin, estali, eta berriro egin behar...

Tokatzen dira horrelakoak, bai. Ez da beti asmatzen.

4. Makina errepidera ateratzea tokatzen denean, zer moduz?

Ondo. Gorpildunak erabiltzen ditugu eta sarri

ibiltzen gara errepidetan. Pazientzia handikoa naiz.

5. Lurretik atera duzun gauzarik zelebreena?

Ez zait ezer ezustekorik ateratzea tokatu. Kableren batzuk, inoiz.*

Mailo Oiarzabal

IRENE ALTUNA
LOIOLA
Loiola Bide, 26 Tel. 943 81 51 87
www.aitziber.com

AZKOITIA
ERLOJU
KONPONKETAK
Arend, 5
AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12

Koh Tao
OSAGARRIAK
Fon. 0114000, 3 + Tel.: 459 488 193
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)

Alar
merceria
Loiolako Iazulo Hiribidea, 9
Tel.: 688 81 87 78

ORDULARI
Jose de Arrese, 10
Tel. 943 81 52 44
20730 AZPEITIA

Luba
Aholkularitza
Finantza
Gestioiariak
Finan. administratzaileak
Gestio inmobiliarioak
Tel. 943 151 224 Fax: 943 151 225
Euzkadi Kalea, 18 - 20730 AZPEITIA

KIRURI
JATETXEA
Loiola hiribidea, 24
LOIOLA - AZPEITIA
Tlfnoa.: 943 81 56 08
Faxa.: 943 15 03 62

adi
ARTE ETA
DISEINU
ESKOLA
ELKARTEA
Marraskia eta eskulanak
(haurrak) 17:30 - 19:00
Pintura 16:00 - 17:30
(helduak) 19:00 - 20:30
Talla 18:30 - 20:00
Jose Arrese kalea, 3
943 81 28 08
artediseinu@gmail.com
Matrikula arte osoan zabalik

Txikitan joandakoa

Bizitza ia osoa Hondarribian badarama ere, Azpeitian jaiotakoa da Eider Mendoza, Gipuzkoako Batzar Nagusietako egungo burua. ✎ Mailo Oiarzabal

Nire attitteren eta amaren etxeko sukaldeko irudi bat; eta eskolara joaten nintzenean, bueltakoan anaia nola egoten zen balkoian nire zain, begira. Ez daukat besterik, dio Eider Mendoza Larrañagak (Azpeitia, 1974) jaioterrian bizi zeneko oroitzapenez. Izan ere, 4 urterekin joan zen Hondarribira bizitzera gaur egungo Gipuzkoako Batzar Nagusietako burua. “Protokoloz hala” izan arren, nahiago du bere karguari lehendakari izendapena ez ematea. “Nik Batzar Nagusietako burua esaten dut, ze lehendakaria beti iruditzen zait bakarra dela”, zehazten du.

Etxe Alai auzoan bizi izan zen Mendoza Azpeitian, eta etxetik gertu zituen Jesuitinen ikastetxean eskolatu zuten lehen aldiz. Denbora gutxi iraun zuen eskolako lehen esperientzia hark, “irailean hasi eta martxoan utzi” baitzituen Jesuitinak, familiarekin Hondarribira joateko. Txikitan joan arren, Azpeitiarekin “oso harreman estua” mantentzen du Mendozak, aitarene aldeko lehengusuekin. “Ez dira lehengusu batzuk urrutikoak direnak edo, ezta gutxiago ere; harreman oso estua daukat azpeitiarrekin, batik bat nire adinekoekin edo pixka bat zaharxeago direnekin”. Mendozatarrak urtean behin edo bitan lehengusu bazkariak edo afariak egiteko elkartzeko direla kontatu du; azkena, Azpeitian bertan egin zuten. Berak Azpeitiko lehengusuekin mantentzen duen harremanaz gain, seme-alabek lehengusu helduenaren alabekin ere

harreman estua dutela dio. “Oporretan-eta egoten gara elkarrekin, eta gero, Azpeitira joaten dira nire seme-alabak astebururen bat pasatzera, haiek Hondarribira etortzen dira...”.

Lehengusuekin eta Garai baserriarekin lotuta daude, gehienbat, Mendozaren umetako eta gaztetako Azpeitiko bizipenak eta oroitzapenak. “Egun batzuk pasatzera joaten ginen, udan, han inguruan ibiltzera, lehengusuekin eta”. Festetan etorri izan al den galdetuta, “oso festazalea sekula ez” dela izan dio. “San Inazio egunean bai joaten ginen Garaira bazkaltzera, urtero. Gero, Azpeitira asko joan izan naiz, lana dela-eta askotan tokatu zait joatea. Azpeitiarekin eta Azkoitiarekin beti eduki izan dut harreman berezi bat, oso gustura joaten naiz beti”. Azpeitian aitarena bezala, Azkoitian dauka amaren familia. “Nik etxean azkoitiarrez hitz egiten dut”, kontatu du.

Etxeko sofaren oreka

Enpresa ikasketak egin zituen Mendozak Bordelen (Frantzia) eta han ezagutu zuen senarra izango zuena, Donibane Lohizuneko (Lapurdi). “Ezkondu eta Hondarribira joan ginen bizitzera, eta lau seme-alaba eduki ditut. Hor, gainera, parekotasuna badago Azpeitiko lehengusu batekin, haren senarra Parisen jaiotakoa baita; bi etxetean frantsesez hitz egiten da, bai Azpeitiko nire lehengusuarenean eta bai gurean”.

Lanagatik sarri “desorduetan” ibiltzea tokatu arren, jarduera profesionala familiarekin eta

denbora librearekin uztartzeko etengabeko ariketan “oreka antzeko batera iritsita” dagoela uste du, baina azkar gaineratu du: “Bueno, momentu honetan; igual hemendik astebetera esango dut ezetz! Baina seme-alabak hazi egin dira, zaharrenak 16 urte dauzka eta txikiak 6. Autonomia maila pittin bat badaukate”. Gustuko dituen gauzen artean lehen tokian jarri du, hain zuzen ere, etxekoekin igarotzen duen denbora. “Gehien-gehien gustatzen zaidana etxekoekin egotea da. Askotan esaten diet: ‘Ez dago munduan ezer gehiago gustatzen zaidanik zuekin hemen sofan etzanda egotea baino’”.

Ibiltzera irtetea, mendi bueltak egitea edo lagunekin egotea dira gustuko dituen beste jardura batzuk. “Ez dakit, gauza normalak. Ez daukat afizio berezi bat”. Festazalea ez den bezala, kirolaria ere inoiz ez dela izan dio, “ez praktikatzeko eta ez ikusteko”. Pilates egiten du, lanean “eserita eta irakurtzen” ematen dituen orduekin “pixka bat mugitu beharra” daukalako. Korrika egitea ere gustuko du, “baina kostatu egiten zait; 20 minutu baino gehiago korrika egitea ez dut oraindik lortu”. Gehien maite duen kirola, “asko-asko”, arrauna da. “Eta bihotza berdea daukat, noski!”, azpimarratu du, herriko traineruaren koloreari keinu eginda.

Irakurle porrokatua ere bada Mendoza, “gainera, inongo diskriminaziorik gabe; hau da, irakurtzen ditut egunkariak, Eroskik ate-

ratzen dituen liburuxkak eta liburuak. Eskuetan hartzen dudan guztia". Eleberri historikoak dira gehien gustatzen zaizkionak, baina beste molde batekoa da elkarriketa egiteko unean leitzen ari zen liburua: Dolores Redondoren *Todo esto te dare*. Txikitan Hondarribiko Eskifaia Txiki abesbatzan kantatu zuen, eta musikari dagokionez, koruak ditu gustuko. Eta San Inazioaren martxa izugarri gustatzen zaio: "San Inazio egunean, hori... bueno, bueno! Oiloipurdia sortzen duen gauza bat da".

Aspaldian bidaia luzerik egin gabe dago. "Familia sortu eta lehenengo lau urteetan hiru ume edukita, bidaiek egitea guri behintzat kostatu egin zaigun gauza bat da. Sei pertsona mugitzea ez da erraza izaten", aitortu du. Hala ere, aurten egiteko asmoa du familia osoarekin "bidaia luzexeago bat", Britainia eta Normandia aldera. Eta badu buuruan egitea gustatuko litzaiokeen beste bidaia bat, are luzeagoa: "Laosera joango nintzateke gustura. Nire senarraren arreba han dabil urteetan lanean. Oporrak hemen abuztuan dira, ez da garairik onena hara joateko, seirak haraino mugitzea ez zaigu erraza egingo, baina lortuko dugu, egunen batean".

Karguak betirako ez

Etiket, eta batik bat amaren aldetik, datorkio Mendozari politikarako joera. Oso gazte hasi zen militatzen, 16 urterekin afiliatu zen EAJn, baina politikaren profesionala izatea "sekula ez" zuela pentsatu dio. 26 urterekin iritsi zen lehen aldiz Gasteizko Legebiltzarrera, "Ibarretxerekin 33 legebiltzarkide famatu haiek eduki genituenean". Harrezkero, erakunde batean eta bestean aritu da lanean. Baina "militantea bizitza guztian" izango dela dioen arren, ez dauka asmorik "profesionalki beti honetara dedikatzeko". Politikan lanean hasi aurretik Irungo garraio enpresa batean egiten zuen lan, eta hango plaza mantentzen du. "Nire lehenengo pentsamendua da, honekin bukatzen dudanean hara bueltatuko naizela". Hala ere, bada egitea gustatuko litzaiokeen beste gauza bat: "Haurren munduan lan egitea". Etorikizunak esango du.*



1. Mendozatarrek egindako azken juntadizoan, anai-arrebekin eta lehengusuekin. Sanagustin kulturunean ateratako argazkian, eskubitik hasita aurrena da Eider Mendoza. **2.** Azpeitiko ikasle eta irakasle talde batekin, Batzar Nagusietan, ate irekien jardunaldi batean.


Euskal Herria, 34
20730 AZPEITIA
Tel: 943 16 16 40
Larrialdetik:
943 16 16 40
Ekain
ALBAYTERI KLINIKA


ostadar optika
OPTIKAS - OPTOMETRIAS
Jose de Arce, 17
Tel: 943-810664
AZPEITIA
Iñaki Ochoa, 28
Tel: 943-850445
AZKOITIA


Dien autoak bertan daramizkoiztenak
AIZPURU AUTOAK
MAINTENIMIENTU
Tel: 943 81 23 59
Fax: 943 81 22 81
aizpuru@aizpuru.net
www.aizpuru.net
Arribas 17, 20730 AZPEITIA

TELEFONO ZENBAKIAK

TOKI PUBLIKOAK

Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Berritzen	026069
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Iturritxiki Ludoteka	15 11 79
Txiki-Txoko Ludoteka	15 05 16
Gaztelekua / GIB	15 71 61
Lanbide	15 04 02
Kiroldegia	81 30 69
KIUB	15 72 01

Igerilekua	81 41 21
Emakumeen Txokoa	15 70 55
Ertzaintza-Azkoitia	083780
Baigera I	81 51 71
Baigera II	81 23 89
Epaitegia	02 51 91
Ingurugiro Etxea	81 24 48

OSASUNA

Anbulatorioa	025400
Anbulator. larrialdia	025401
Eguneko zentroa	15 74 96
Asepeyo	814400
Gurutze Gorria	85 32 97
DYA-Donostia	46 46 22

KOMUNIKABIDEAK

Uztarria	15 03 58
Hitza (Azpeitia)	81 38 41
Hitza (Zarautz)	890017
Azpeitian Zer?	080688
Erlo Telebista (Azpeitia)	81 53 35
Berria	943 30 40 30
Gara	943 31 69 99
Noticias (berriemailea)	687 60 50 06
DV (berriemailea)	610 81 29 12
Argia	943 37 15 45
Arrate Irratia	943 12 01 73
Euskadi Irratia	943 01 23 00
ETB	943 01 17 05

ALDERDI POLITIKOAK

Bildu	15 72 00
-------	----------

FARMAZIAK (ABENDUA)

1-13-20-26-29-30
Beristain (Azpeitia).
943 811949

6-7-12-18-22-23-31
Aranburu (Azpeitia).
943 811949

LARRIALDIAK

112

ODOL-EMAILEAK

Abenduaren 11n eta 27an
izango dira hitzorduak,
17:00etatik 21:00etara,
anbulatorioan.

EAJ	81 55 70
Sortu	15 72 00
EA	81 00 11
Aralar	647 42 59 95
SINDIKATUAK	
ELA	81 34 46
LAB	15 13 56
EHNE	81 39 28

KULTURA-EUSKARA

Sanagustin	10 52 20
Kultur Mahaia	674 16 56 84
Euskara Patronatua	81 45 18
Natuleuskara taldea	661 10 44 46
Udal Euskaltegia	81 19 47
Udal Liburutegia	15 71 95
Loiolako Liburutegia	816508
Kontseilua	943 59 12 00
Bai Euskarari	902 43 00 26

IKASTETXEAK

Iraurgi (Betharram)	81 16 68
Iraurgi (Milagrosa)	816380
Iraurgi (Jesuitinak)	81 22 49
Ikasberri	15 12 46
Karmelo Etxegarai	81 26 97
Urola BHI	15 02 28
Uztaro	81 31 90

BESTERIK

Xoxoteko aterpea	58 10 07
Eregi	943 08 06 88

ORDUTEGIAK

UDALETXEA || Asteguna: 08:30-14:00 || Larunbata: 09:00-12:30 UDALETZAINGOA || Egun osoz irekita egoten da ANBULATORIOA || Egun osoz irekita egoten da IGERILEKUA || Astelehena: 14:00-21:00 || Beste egunak: 07:00-21:00 || Larunbata: 10:00-13:00 eta 16:00-20:00 || Igandea eta jai egunak: 09:00-13:00 || Kanpokoak: ekaina arte itxita KIROLDEGIA || Astegunak: 10:00-13:00, 15:00-21:00 || Larunbata: 10:00-13:00, 16:00-20:00 LIBURUTEGIA || Astegunak: 09:00-13:00, 15:30-20:00 || Larunbata: 09:00-13:00 || Ekaineko azken astean, uztailean, abuztuaren: 08:30-14:00. Abuztuko lehen hamabostaldian itxita. GAZTELEKUA || Asteartea-ostirala: 17:00-20:30 || Larunbata: 16:00-20:30

ERABILGARRI

The screenshot shows the 'KONTU LEPO' website. The main article is titled "Broteh Verdes" Azpeitian and discusses a health issue in the town. The sidebar on the right lists various news categories and dates. The website has a dark header with the 'KONTU LEPO' logo and navigation links.

▲ 'KONTU LEPO' BLOGA.

Urriaren erditik martxan da gaztetxearen kontulepo.eus ataria. Hainbat gai jorratzeaz gain, agendarekin osatuko dute ataria, eta gaztetxeko kideen "pentsaera" azaltzeko gunea izango da.

4-9-10-15-21-25
Eizagirre (Azpeitia).
943 811274

GAUEZ, URTE OSOAN
Beristain (Azpeitia).
943 811949

GARRAIOA

ALDALUR	943 85 25 87
EUSKO TREN	902 54 32 10
GUIPUZCOANA	943 85 11 59
PESA	943 21 26 99
PIPER ELKARTEA	943 85 25 87
TAXIAK	943 81 13 07

|| autobusen ordutegia osoa:
www.uztarria.eus/azpeitia/
autobusak

ABEL SEGUROLA

Artzaina

“Ea gazteak animatzen diren artzain izatera”

Uztarriaren 1. zenbakian (1999. urtean) Abel Segurola artzaina izan zen ‘Hi heu’ ataleko protagonista. 100.ean (2008an) ere bai. Baita orain ere, 200.ean. 📧📞 Enekoitz Esnaola

Hemen garena berriz ere, Abel...

Bai, moteil. Ez duk seinale txarra. Ea 300. zenbakian bizi garen. Biziko gaituk, ezta?

300.a, 2026an hukek. 500.a, 2044an.

75 urte nik 500.ean. Ezingo diat arkumeen atzetik ibili.

Oraintxe-oraintxe jaio zaik bat.

Garaia duk. Azaroaren 11tik abenduaren 13 aldera, gabonetarako, igual jaioko zaizkiguk 500en bat arkume.

Erraz saltzen al dituzue?

Gero eta zailagoa zagok. Gainera, ba al dakik zer pasatzen den? Hemengo genero ona kanpora eraman behar izaten diagu saltzeko, Madril aldera, eta hemen Eroski-eta arkumea Greziatik ekartzen ari dituk, hemengo baina eskasagoa. Ez gaituk naturalak!

1999an 600 ardi zenituzten, 2008an 900. Gaur egun?

900 inguru.

Non ibiltzen haiz?

Hemen Elosiagan, Loiolan eta Goiatz aldean, eta gero Lasarte eta Urnieta aldean ere bai. Etetik [Elosiagatik] Loiolara ordu laur-

den bat diat, eta sasoi honetan gauero bi aldiz etortzen nauk Loiolara ardiengana.

2008ko elkarrizketan esan huen artean ez zenutela krisia nabaritu.

Harrezkero bai, eta gogor. Jendea gazta eta arkumea gutxiago kontsumitzen hasi zuan, eta esnea saltzeko ere problemak.

Ondo bizi al haiz, ordea?

Ezin kexatu.

Lekukoa hartzeko inor ba al daukak?

Semeari [13 urte] gustatzen zaiok, alabari [14 urte] baino gehiago. Biek laguntzen zidatek, baina semeari eskola asunto hori ez gustatzen eta...

Azpeitian zenbat artzain zaudete?

3-4?

Eta 1999an, horrelako aurreneko elkarrizketa egin genuenean?

2-3 gehiago. Ea gazteak animatzen diren artzain izatera. Ezin diagu kultura hau galdu.

Zer behar da?

Bokazioa. Ez derrigortu inor honetarako.

Kale aldera jaisten al haiz?

Tarteka bai, kuadrilarekin-eta afari batzuk egitera. Hori ere egin beharra zagok.*



1. Abel Segurola, joan den azaroaren 22an, Azpeitian, Loiolan, Uztartaria aldizkariaren 1999ko eta 2008ko zenbakietako elkarrizketekin.

2. Uztarriarekin elkarrizketan zegoela arkume bat jaio zitzaion. **3.** Artaldearekin, Loiolan.



Kropotkinskaya geltokian

1 985ean itzuli nintzen Moskura. Moskuko Espainiako enbaxadara. San Jose konpainiako bi kamioi joan ginen, enbaxadetako garraioa egiten zuten Madrileko beste hiru kamioirekin batera. Kutxa gotorrak eta intsonorizazio materiala generaman. Entzuketan kontrako materiala. Orduantxe egun batekoagatik inoiz irabazi dudak dirurik gehiena. Moskuko bidaia hura ikaragarria izan zen.

– Zeu zara komeni zaigun morroia. Enbaxadorearen txofer izatea proposatu zidaten. Ingurua ezagutzen nuen, perfektu hitz egiten nuen errusieraz... eta gaztelaniaz ere bai, jakina. Enbaxadoreak Mercedes beltza zuen, zoragarria, banderatzu eta guzti. Oso auto ederra.

– Atzo enbaxadorearekin afaltzen izan ninduan eta esan zidaan beraren txofer partikularra izatea proposatzeko hiri.

Enbaxadorea etxe batean aparte bizi zen, andrearekin.

– Ez, ez. Nik ez dut balio. Nik beste ezertan lan egiten dut. Gainera, nik...

– Bazakiagu zer bizimodu izan duan. Ez hadi ergela izan.

– Niri ez didate horrelakorik erakutsi. Jenio txarra dut eta noizetik noizera maldizioak esaten ditut. Ez dut balio enbaxadorearen andrea hartu eta erosketak egitera eramateko beste enbaxadore baten andrearekin batera.

– Eskaintza ona duk, hemen jubilazio ona izango duk.

– Ezetz, ezetz. Itxura exkaxa emango dut. Eta azkenean beharbada kaleratu egingo naute.

Eta konbertsazio hori maila handiko jatetxe dotore batean. Gero despedida afaria eman ziguten kamioizale guztioi Moskuko Metropol hotelean. Nik lehendik ezagutzen nuen hura, moskutar gaztea izan nintzenetik. Kabiarrara... Nahi zenuena jan ahal zenuen gure afari hartan. Nahi beste. Enbaxadako idazkaria gurekin zegoen. Halabeharra zer den! Beraren



|||||||miel a. elustondo|||||||

|||Moskuko metroa esaten dena baino politagoa da. Ikusi egin behar da. Ez sinestekoa da

arreba nirekin ikasia zen Moskun. Bi anaia-arreba katalan ziren, gurasoekin batera exiliatu zirenak. Delako idazkaria idazle baten alabarekin ezkontuta zegoen. Ez dakit oraindik enbaxadakoa den. Erregearen pare bizi zen.

– Heuretzat okerrago, motel. Horrelako lan bat ez ziotek edozeini eskaintzen.

– Hara, enborrak eramaten ohituta nago ni, ez pertsonak eramaten.

Eta nirekin batera joandako San Joseko beste txoferrak, Azpeitiko mutil batek, onartzeko esaten zidan.

– Ezetz, ez diat nahi. Zazpi urte zeuzkeat jubilatuta baino lehen, eta ez diat azken orduan gauza hemen izorratu nahi.

Nork bere aukerak egiten ditu. Gero Mosku bisitatzea eraman nuen. Leninen mausoleora eraman nuen, metroa erakutsi nion...

Moskuko metroa esaten dena baino politagoa ere bada. Ikusi egin behar da. Ez sinestekoa da. Geltoki bakoitza palazioa da. Marmolezkua, eta kolore diferenteko marmola geltoki bakoitzean. Horixe du iraultzak... Sozialismoan besterik egin ezin litezkeen gauzak dira. Ez dut Leningradoko metroa ikusi, baina are eta ederragoa dela diote. Zaila iruditzen zait Moskukoa baino ederragoa izatea".

Mi vida soviética y algunos kilómetros más, Cipriano Ballesteros. (Eta nor zen azpeitiar hura?).*



GABONETAN

ere erabili

★ azpeitia
txartela



AURTENGO GABONETAN
ZURE KONFIANTZAZKO
DENDA



GAZTA


Ardi gazta aukera zabala
Behi gazta



680 772 037



- Gaztainak
- Bertako kiwia
- Inguruko baserrietako barazki frexkoak
- Kontserba aukera zabala
- Izoztutako arrainak eta kroketak



Zure lasaitasuna gure esku

Sedazio bidezko tratamenduak